



## EIDER ELIZEGI

«Mendia eta eskalada  
bizitzaren alegoria  
sinplifikatuak dira»



- **Kontrabandoa** Bidasoa aldeko gau ibiltarien bizipenak
- **AHT Italian** Turin-Lyon linearen lanak berandutzea lortu dute herritarrek
- **Markos Zapiain** «Nobela oso bat aurki dezakezu amets batean bildurik»
- **Mikel Arana, Ezker Anitza** «Onartezina da Bilduk Kutxabank osatu den bezala onartzea»
- **Net Hurbil** Pixoihalen negozioa eta hondakinen arazoa

**Aste  
honetan...**



**Beranduegi.tv**



### ► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari.



### ► Islandia eta Irlanda: Krisiaren aurrean bi eredu

Islandia eta Irlandako krisi ekonomikoaren sustraiak molde batekoak dira, irtenbideak ordea oso desberdinak. Islandian herritarren erreboltak zorraren zati bat ez ordaintzea ekarri du eta Irlandan, aldiz, mobilizaziorik ez da izan apenas eta gobernuak EBk inposatutako doikuntza ekonomikoa onartu du.



### ► Laburrean: Miren Aranguren

1981, Iruñea. Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea da sorreratik. Mugimenduak hamar urte beteko ditu aurten. Arangurenen ustez, emakumeen egoerak okerrera egin du. Aldiz, mugimendu feminista indartsu dabil.



156 bozka bilduta, Josu Chapibe da otsaileko lehiaketaren irabazlea. Eskuratutako saria, Bermeoko Atxurra hotelean 2 lagunentzako asteburu pasa.

Parte hartu duten bideo guztiak [www.facebook.com/beranduegi](http://www.facebook.com/beranduegi) helbidean ikusgai daude.



[www.argia.com](http://www.argia.com)

[www.beranduegi.tv](http://www.beranduegi.tv)



Azaleko argazkia:  
EIDER ELIZEGI  
UTZIA

Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >



**gizarte  
kutxa**  
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2012ko martxoaren 4a, 2.313. zenbakia

## Deabruaren abokatua

- **Maite Aristegi:** «Errazagoa da parlamentaria izatea nekazaria izatea baino». SUSTRAI COLINA / 4

## Asteko gaia

- **Kontrabandoa.** Mugak gainditu dituen tradizioa. UXUA LARRETXE / 5

## Pertsonaia

- **Eider Elizegi:** «Gauzetatik askatzeak izugarritzko askatasuna ematen dizu». REYES ILINTXETA / 11

## Gaiak

- **AHTren kontrako mugimendua Italian.** Erresistentziaren eredu. ANE IRAZABAL / 16

## Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Sautrela, hezibide sentimental bat. BENAT SARASOLA / 20
- Gure egutegia. IXABEL ETXEBERRIA / 21
- **Hiruko txikian** Biktimak. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- Barkamena eta damua. XABIER ETXANIZ ERLE / 22
- **Txandan** Ai, aita! EDU ZELAIETA / 22
- **Zirtak** Urruzuno. JULEN GABIRIA / 23
- **Bertso berriak** Etsipenaren aurka jarriak. XABI PAYA / 24

## Erdiko kaiera

- **Markos Zapiain:** «Eztabaida ideologikoaren buruzagiak oso banpirikoak dira literaturarekin». GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Kulturgintza.** Likiniano-Gatazka gunea itxita, herri kulturak galdu du. MYRIAM GARZIA / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

## Termometroa

- **Mikel Arana:** «Lau koloreko Euskadi politikoa ez da erreala». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Zerga sistema.** Herritarrek multinazionalak bezainbeste ordaintzen dute. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Unai Larreategi:** «Asimilazio kulturalari beste era batera aurre egiten ikasi behar dugu». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Pixoihaiek gorderik daramaten benetako zikinkeria. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- Eten da, dugu, gara... IÑAKI MURUA / 50



# “Errazagoa da parlamentaria izatea nekazaria izatea baino”

**Maite Aristegi**

“Agur Ben-Hur eta gora Amaiur!”.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

## Beti frentean eta beti gerrarako prest!

Ez badut ahal dudana ematen gaizki sentitzen naiz, eta azkenerako, gehiago da jasotakoa emandakoa baino. Denok jarri behar genuke gure aletxo. Ur tanta askok osatzen dute itsasoa.

## Kazetariarentzat Itsaso Beltza izango zara zu. “Baserritar bat Madrilgo legebiltzarrean!” diote aztoratuta.

Noiz arte izango du “baserritar” hitzak kutsu zakar, klasiko, ez-jakin eta atzerakoia? Noiz emango diogu nekazaritzari dagokion onarpena? Errazagoa da parlamentaria izatea nekazaria izatea baino.

## Legebiltzarrak errealitatetik legoetara daudela-ko, agian?

Herritar xeheok ere izan gaitezke parlamentari, ez abokatuak eta ekonomialariak bakarrik. Politika euren esku utziz gero, Legebiltzarra elefante baten moldakortasuna duen kristalezko etxea izango da berriz.

## Niri ez dit piperrik ardura Madrilgo Legebiltzarra kristalezkoa, lastozkoa edo elurrezkoa den!

Lapurtu ziguten altxorra berreskuratzera goaz, hemen egiten den lanari han bultzada eman. Horrek ez du esan nahi Madrilen atzerrian sentitzen ez naizenik.

## Eskerrak Madrilen euskalduna izatea eta gehien-oso baten oposizioan egotea antzekoak diren.

Diskurtsorik onena ere estoldatik behera doan ura da. Okerrena da gure antipodetan daudenek ere guk erabiliko genituzkeen hitz eta kontzeptuak erabiltzen dituztela hain zuzen kontrakoa esateko. Hizkuntza ustelduta dago eta botereak hitzak lapurtu egiten dizkigu.

## Lasai Maite, aro berriak salbatuko gaitu!

Elkarlanean eta indarrak batuta iritsiko gara tunelaren osteko argira. Ur geldia usteldu egiten da, eta guk ere errekaostoen mugimenduan egin behar dugu aurrera, gelditu gabe, paretak bota eta zubiak eraikiz.

## Erne ibili, ze erregeari ez zaio ura gustatzen, eta botoa eman dizueten askori zuek erregearekin ikustea ere ez.

Zubiak bi alde lotzen ditu, eta gu bietara begira gaude, biak lotzen jarraitu nahi dugu. Kanpainan agindutakoak betetzen ahaleginduko gara, baina ez dugu agintzen beti asmatuko dugunik. Ezinezkoa da. Badakizu, ezer ez egitea da hankarik ez sartzeko aukera bakarra.

## Politikariak nola baloratuta zaudeten ikusita...

Denak gaude politika hauen kontra, politikarekin haserre, baina gero beti berdintsuek irabazten dute. Non gelditzen da kritika? Non daude botoa ematen dutenak? ■



## Kontrabandoa

# Mugak gainditu dituen tradizioa

Espainiako eta Frantziako estatuen artean egonik, kontrabandoa ohiko jarduna izan da Euskal Herrian. Historiaren zati garrantzitsu honi heltzeko, protagonistei beraiei galdetu diegu, gau lanean aritu ziren gizon-emakumeei.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco

«BEHIN, ETXALARTIK SARARA ahari batekin kontrabandoan zihoan gizon bat harrapatu eta kontrabandoan aritzeagatik aharia kendu behar ziotela erran zioten eltzetzuek: “¿Yo de contrabando?, no hombre no, se ha escapado... Ya sabes, el amor”. Ahariak ardien gibeletik Sarara ihes egin ziela eta haren bila joana zela erran zien», kontatzen du *Gau lana. Kontrabandoa Bidasoa aldean* liburuak.

“Konpentsazio bat zen, estatuek edo agintariek ezarritako gehiegikerien aurrean herri-tarrek emandako erantzuna”. Robert Bresson idazlearen hitz horiekin bat egiten du Rosa Arburuak Euskal Herrian tradizio luzea bezain oparoa izan duen kontrabandoaz mintzatzerakoan. Bidasoar honek berriki kaleratu du *Gau lana* liburua, etxean txikitatik entzun dituen kontrabandoari buruzko pasadizoetan gehiago sakontzeko nahiak bultzaturik. Oso gertutik bizi izan du gaia, aita eta haren bi anaiak, Etxalarkoak, kontrabandoan arituta-koak baitira, “XX. mendean Bidasoa inguru-ko gehienak bezalaxe”.

Mugak, aduanak eta ordainketa guneak ezarri zituztenetik existitzen da kontrabandoa edo gau-lana. André Besson idazle frantsesaren arabera kontrabandoa zibilizazioa bezain zaharra da. Mugen bidez, agintariek erabakitzen zuten zein produktu pasa zitezkeen eta zein ez, eta kopuru jakinak baimentzen zituzten gainera. Espainiako Gerra Zibilaren ondotik, adibidez, Hego Euskal Herrian ez zegoen ogi zuririk eta Saratik Etxalarrera kontrabandoz eramaten zuten. “Nola debeka zezaketen ogia pasatzea beharra baldin bazegoen? Hori ez al da gehiegi-



“Presa pasatzeko, arropa kendu, poliki-poliki pasa eta arropa berriro janzen genuen. Kontuz ibili beharra zegoen presara ez erortzeko, sakonera handia baitzuen!”, kontatu digu Lino Etxegarai beratarrak.



keria bat?”, dio Arburuak. Aduanen kasuan, diru kopuru bat ordaindu beharra zegoen produktuak pasatzeko. Nafarroan Erdi Aroan “tabla” izen-dapena hartu zuten, eta egungo autobideko ordainlekuen funtzioa zuten. Arrazoi horiek medio, hastapenean beharriak asetzeko eta aipaturiko ordainketak saihesteko egiten zen kontrabandoa. Gerora, baita etekin ekonomikoak lortzeko ere. “Zer nahi zenuen, ba? Hortxe zen dirua irabazteko modua. Nola ez aritu hartan? Bistan da besterik ezin genuela egin”. Urruñako Ernestineren hitzak dira horiek —abizena ez du argitaratzerik nahi Ernestinek—. Bera ere urte askoan kontrabandoan aritua da, baina argi utzi nahi izan duenez, “norbaiti kalte egitekotan, estatuei egiten genien kalte”.

Euskal Herriak kontrabandorako oso baldintza onak eskaintzen ditu, batik bat Bidasoa inguruak. “Muga fisiko, politiko eta administratiboa izan da. Kontrabando asko eman da kilometro gutxian. Bertze gune batzuetan ere izan da antzeko mugimendurik, baina hemendik pasatu da kontrabandoa nagusiki”. Mendiak eta ibai nahiz itsasoak, biek eskaintzen dute kontrabandoan aritzeko aukera paregabea.

Gauza anitzekin egin izan da kontrabandoa: ogia, fabriketarako eta garraiorako pie-

**“Bidasoa muga fisiko, politiko eta administratiboa izan da. Hemen kontrabando asko eman da kilometro gutxian”**

**ROSA ARBURUA,**  
*GAU LANA. KONTRABANDOA BIDASOA ALDEAN*

zak, arraina, kafea, tabakoa, edariak, arropa, kondoiak, telebistak, almendrak, parpailak, aziendak, dirua, urrea... Iparraldetik Hegoaldera eta alderantziz, bi norabideko jarduna izan da. Unean uneko egoera politiko-ekonomikoak arras baldintzatzen zituen bai kontrabandorako erabiltzen ziren produktuak, bai kopurua bera ere. Esaterako, Gerra Karlisten garaian itsasoz armak garraiatu zituzten batetik bestera.

**Ibardindik alkohola pasaz**

Ernestine 18 urte ingururekin hasi zen kontrabando lanetan: “Garai hartan arrain fabrikari egiten nuen lan eta orain bezala lehen ere Ibardinen ondoan bizi nintzenez, handik Urruñara alkohol botila batzuk ia ekarriko nituen galdegin zidaten, eta nik onartu. Hala, Ricard, Porto eta Martini ekartzen hasi nintzen Bentatik, hasieran bizikletan eta gero mobiletean. Aduanara iritsi aitzinetik [bera bizi den baserriaren ondoan zuen aduana], paketeak bide bazterrean gordetzen nituen eta etxera joaten nintzen aduanatik pasatuz. Gero berriz ere oinez itzultzen nintzen paketeak hartzera”. Hamar bat guarda izaten ziren aduana zaintzen.

Alkoholaz gain, bestelako produktu ugari pasatzen aritu izan da lapurtarra, eta horretarako, Berako Lino eta Juan Luis Etxegarai

anaiak izan zituen bazkide. “Errodamen-  
duak garai hartako Jugoslaviatik Parisko bil-  
tegiara eramaten zituzten eta gero handik  
Donibane-Lohizunera. Larunbat arratsal-  
deetan Frederic semearekin joaten nintzen  
bila eta Renault-ean eramaten genituen 700  
bat kilo, Linorekin adostutako lekura”. Hile-  
ro tona bat pasatuz aritzen ziren udazken  
eta neguan; uda eta udaberrian aldiz, Lino-  
ren anaia Juan Luisekin arro-  
paren kontrabandoan jarduten  
zuen. Miarrizten izaten zituz-  
ten biltokiak.

Alta, produktua ez direnek  
ere igaro izan dituzte mugak eta  
aduanak: ideiek, kasu. Arbu-  
ruak azaldu digunez, XVIII.  
mendean eta Frantziako Iraul-  
tza ostean, Europako erregimen absolutistek  
ez zuten ideia iraultzaileak euren lurretan sar-  
tzerik nahi, baina igaro igarotzen ziren.  
“Mezuak idatzita zituzten abaniko batzuk  
aurkitu zituzten”. Ondoren, itsasontzien  
bidez, Ilustrazioaren ideiek Amerikaran  
bidaia zuten. “Garai batean espiak ere iza-  
ten ziren eta kontuz ibili beharra zegoen”.

Beste kontrabando mota bat jende pasa  
izaten zen: pertsona muga pasatzen lagun-  
tzen aritzen ziren mugalaria. Normalki,  
beste kontrabandoetan jarduten zuten, eta  
bidenabar, baita jendea pasatzen ere. Ezku-  
tuan laguntzarekin muga zeharkatzea lor-  
tzen zutenen artean zeuden, besteak beste,  
aristokratak, juduak, nazionalistak, Bigarren  
Mundu Gerran alemanen aurka ari zirenak  
eta Frantzia lan egin nahi zuten portugaldar-  
rak.

Azken horiei dagokienez, emigrazio han-  
dia egon zen 1960tik 1974ra bitartean. “Esa-  
ten da, gutxienez, milioi bat pertsona atera  
zela Portugaldik, eta horietatik 800.000  
inguru Frantziara joan zirela lanera”. Garai  
hartan Salazar diktadorea zegoen agintean,  
eta hark pasaportea lortzea galarazten ez

### Portugaldik 800.000 pertsona inguru Frantziara joan ziren lanera, eta horretarako, kontrabandista euskaldunen laguntza izan zuten

bazuen ere, baldintza ezinezkoak jartzen  
zituen horretarako. Bestalde, Portugal bere  
koloniek gerran zebilen eta gizon gazteak  
nahi zituen borrokarako. Miseria eta gerrara  
joateko borondate eza ziren herrialdeetik ihes  
egiteko arrazoi nagusiak. Frantzia, aldiz,  
lana zegoen eta oso gustura hartzen zituzten  
portugaldarrak, “oso langile finak eta saia-  
tuak zirelako, katolikoak eta zuriak”. Horre-  
tarako, 2.000 kilometro eta bi  
muga zeharkatu behar zituzten  
kontrabandista euskaldunen  
laguntzarekin; tartean zegoen  
Ernestine.

Haatik, kontrabandisten  
artean nolabaiteko errezeloa  
bazen jendearekin kontraban-  
doa egiterakoan, Arburuaren  
hitzok adierazten dutenez: “Nire aitatzik beti  
erraten zion nire aitari ez pasatzeko ez arma-  
rik, ez pertsonarik; armek jendea hiltzen  
dutelako eta pertsonak solasean aritzen dire-  
lako”. Kontrabandisten artean etika kode bat  
zegoela gaineratu digu, nahiz eta betiko lez  
egonen zen bakarren bat errespetatuko ez  
zuen. Alta, kontrabandisten artean ongi  
zekiten nork ez zituen gauzak ongi egin, eta  
geroztik gaizki begiratzen omen zuten gaine-  
rakoe.

### Herria kolaboratzaile

Kontrabandoan batzuk oso gazterik hasi  
ziren, kasuren batean 10 bat urterekin. Nola-  
nahi ere, 13-16 urte bitartean hasia izaten  
zen ohikoa. “Haurrak ez ziren paketeekin  
aritzen, bai ordea baserrietara mezuak bidal-  
tzen eta bideak libre ote zeuden begiratzen.  
Bi momentu garrantzitsu izaten ziren haur  
izatek gizon izatera pasatzeko prozesuan:  
jaunartzea —eta horrekin batera galtza motzak  
utzi eta galtza luzeak janztea— eta kontraban-  
doan hasia. Kargarekin bide oso luzeak egi-  
ten zituzten, baina beraientzat hori oso  
inportantea zen, ohoratzen zituen zerbait.



# TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

## Lino Etxegarai «Garai hartako fabrika zen»

15 urte zituela hasi zen Berako Lino Etxegarai kontrabando lanetan, Juan Luis anaia alboan zuela. Ordutik urte askotxo pasa badira ere, ederki gogoratzten ditu garai hartan bizitakoak.

**Juan Luis anaiak eta biok herentziaz jaso zenuten kontrabandoan aritzea, ezta?**

Guk hori ikusi genuen txikitatik, gure ama Carmen eta Lino atautxi ere aritzen baitziren. Ez zen bertze lanik eta guretzat kontrabandoa beste edozein lan bezalakoa zen, garai hartako fabrika. Norbaitek erraten zizun zein ordutan eta zein lekutan behar zen pertsona bat zerbait pasatzeko, eta, gu han izaten ginen.

**Gogoan al duzu kontrabandoan aritutako lehen eguna?**

Mendiz lehen bidaia egin nuenean 15 bat urte izanen nituen. Ibardindik 20 kilo inguruko karga hartu eta Bidasoa aldera pasa beharra nuen. Pentsatu nuen “hau ez da niretzat”. Nire anaia Juan Luisek bost urte gehiago zituen eta hori aise ibiltzen zen; berak erakutsi zidan. Sos beharra genuen eta aurrera jarraitu behar!

**Zerekin aritu izan zara kontrabandoan?**

Aberreen kasuan, behorak eta mandoak Espainiatik Frantziara eramaten genituen, eta zekorak Frantziatik Espainiara. Zientoka ekartzen ziren. Alkohola ere eramaten genuen garrafoietan, buruan pasatzen genituen. Gainontzean, errodamenduekin ere anitz ibilia naiz eta arraiak, telebistak, kamioietako piezak, penizilina, puruak eta altzariak ere pasatu izan ditut. Halere, nik nahiago nuen paketeekin aritu aziendarekin baino, inoiz ez baitakizu abereek zer egingen duten.

**Bera inguruan jende asko aritzen al zen kontrabandoan?**

Hiru koadrila baziren, eta horietako bakoitzean hogeit bat aritzen ginen nagusi batentzat lanean. Apaizak ere aritzen ziren kontrabandoan, baina halere eskas zenez, Irundik ere ekartzen zen jendea. Pentsa, guardia zibilen haurrak ere aritzen ziren!

**Zenbateko maiztasunarekin egiten zenuen kontrabandoa?**

Eskaeraren arabera aritzen nintzen, batzuetan egunero eta bertzetan bi edo hiru egunetan deus ere ez. Mendian aritzen nintzenean lanean, ilunabarrerako etxera joaten ginen eta bertan zein lan egin behar nuen abisatzen zidaten; orduan, afaldu, bokadilo bat hartu eta martxa! Batzuetan ilundu aurretik joan behar zen, bestetan ilundu eta segidan, edota gauerdia aldera, ez zegoen ordu zehatzik. Tartean gaueko bi bidaia ere egiten genituen. Zenbaitetan gogorra izaten zen, egunez lanean aritu eta ondoren kontrabandora joan beharra! Dena den, iluntasuna ez zen oztopo, gauez egunez bezala ikusten da-eta.

**Behin guardia zibilak harrapatu eta apuru ederrak pasa omen zenituen...**

Bai, belaunean egin zidaten tiro eta orain protesia dut. Urtarrilak 10 zela gogoan dut. Denak batera ginen, anaia tartean; eguraldi txarra zegoen eta lan asko eginda nuen. Goizetik gauza anitzekin aritu ginen alde batetik bertzera, eta azkeneko lana Ibardindik rosli puruak ekartzea zen. Hamabost lagun inguru ginen eta ni gibeletik joan nintzen hasiberria zen gazte batekin. Orduan gelditu egin nintzen paketeak ongi paratzeko eta botatik sartutako harria

Eta nahiz eta leher eginda bukatu, aurrera jarraitzen zuten”, azaldu digu Rosa Arburuak.

Mendiz paketeekin ibiltzeko erresistentzia fisiko handia behar zenez, gizonezkoak ibili izan dira batik bat mendian barna. Emakumeek bestelako beharrak zituzten: paketeak egin eta gorde, zaintza lanak, sakonera bikoitzeko txalekoak josi, kobratzera joan, seinaleak jarri... “Izan dira emakumeak euren gorputzetan diru asko gordeta izan dutenak”, horietako batzuk Behobia ingurukoak. Esaterako, Hondarribiko emakumeak arrainekin eta angulekin aritu izan ziren. Aginagako angulak Britainiatik ekartzen zirela gogorarazi du Arburuak, eta ondoren Hondarribian deskargatu eta paketeetan jartzen zituztela, ezkutuan Donostiara edo Aginagara taxiz edo autobusez eramateko. Angulak ez ezik,

Hondarribitik Hendaiara legatza ere pasatu izan da.

Lanean jarduteko egituratuta zeuden kontrabandistak, hainbat mailako sarea osatuz. Lehen mailako pertsonak beharrezko produktuak ekartzen zituzten, leku batean handizka erosi eta beste toki batean txikizka saldu. Bigarren mailako kontrabandistek dagokienez, normalean bazkideak izaten ziren eta peoiak izaten zituzten, laguntzaileak: erositako produktuak hamar-hamabi kontrabandistek osaturiko koadrilei banatzen zizkieten eta horiek alde batetik bestera pasatzen zituzten.

Alabaina, koadrilez gaindi familia, herria eta sarri komunitate guztia zegoen kontrabandoan murgilduta, baita animaliak ere! Zugarramurdin, esaterako, txakurrak salatari lanetan aritzen ziren. Kokoak (guardia zibi-



ateratzeko, baina justu beheko kantinatik gora guardia zibilak heldu ziren eta nirekin zihoazenei “*alto*” esan, paketeak bota eta ihes egin zuten. Baina nik ezin nuen eskapatu bi paketeekin, eta goitik behera

nindoala bertzeek utzitako pakete bat ikusi eta hartu egin nuen arrastaka, eta orduan egin zidaten tiro. Han geratu nintzen kieto, gero guardia zibilak etorri eta “*cállate y no declares nada*” erran zidaten eta pake-teak hartu eta han utzi ninduten. Hotza sentitzen hasi nintzen, eta gainera, tiroketa bat entzun nuen ordubetera eta beldur nintzen nire koadrilakoei tiro egin ote zieten. Azkenean, anaia auzokoekin etorri zen bila eta bizkarrean eraman ninduen etxera. Hortik ospitalera, eta ondotik, Iruñeko Opusera. Hiru hilabete eman nituen han. Ordutik, mendia utzi behar izan nuen eta autoarekin-eta ibili nintzen kontrabandoan.

### Eta gainontzean, noizbait harrapatu zintuzten kontrabandoan ari zinela?

Bai, errodamenduak pasatzen ari nintzela atzeman ninduten; momentuan autoa kendu eta preso eraman ninduten Iruñera. Ez zen normala izaten, baina hala gertatu zen. Libre ateratzeko eta autoa berreskuratzeko ordaindu nuen, eta errodamenduak itzuli zizkidaten.

### Apolo astoa bazkide ona omen zenuten.

Lan asko egin zuen horrek! Garai horretan Apolo espaziontzia ilargira bidali zuten, eta hortik datorkio izena. Mandoak bidea ezagutzen zuenez, kargatzen genuen eta bera bakarrik joaten zen. Guardia zibilak azkarrak izan balira erraza izango zuketzen gu zein ginen jakitea, mandoari jarraitu eta kito, baina ez ziren horren azkarrak, beharrik! Apolok hamabost pakete ekartzen zituen, eta hortaz, hamabost lagunena lana berak bakarrik egiten zuen. Gero saria pentsua izaten zuen.

### Gaur egun aukera izanda, kontrabandoan segituko zenuke?

Muga balitz, zergatik ez?

lak) baserri inguruetan sumatuz gero, zaunka hasten omen ziren, kontrabandistek jakin zezaten non zegoen arriskua. Gizarte guztia saltsan egoteak eragiten zuen, hain justu, kontrabandoa begi onez ikusita egotea, ez baitzen pertsona bakan batzuen jarduera, herriarena zen.

Eltzetzuei edo guardei iskin egiteko hainbat estrategia erabiltzen zituzten, akaso ohikoak seinaleak izanzen ziren. “Batzuek belardian maindire bat edo trapu zuri bat jartzen zuten bidea libre zegoela adierazteko. Elkarren artean komunikatzeko animalien soinuak imitatzea ere oso arrunta izaten zen, hala nola, ahuntzaren, ardiaren edota llamaren soinua. Gainera, bakoitzak animalia hori imitatzeko modu propioa zuenez, bazekiten nor ari zen deika”, azaldu du Arburuak. Berako Lino Etxegaraik aipatu

digunez, euren koadrilan ardiaren soinuak imitatuz deitzen zioten elkarri. Hala ere, ez ziren kontrabandistak trikimailuak erabiltzen zituzten bakarrak: “Guardia zibilek hari beltza paratzen zuten bideetan altura batean eta apurtzen bazen bazekiten pertsonak pasatu zirela hortik”, Berako kontrabandistak dioenez.

### Beharrianak asetzeko eta dirua irabazteko bitartekoa

Kontrabandoan aritzeagatik irabazitako dirua aldatu egiten zen garaiaren, egin beharreko distantziaren eta produktuaren arabera. Ernestinek alkohola pasatzeagatik neguan hileko 200 euro eta udan 500 euro jasotzen zituen; “laneko soldata adina zen niretzat”, diosku. Etxegaraik berriz, orduan Irungo harrobian hilero 5 euro inguru ateratzen



PANORAMIO.COM

**Irudian, Ibardingo Bentak, Larrun mendia atzean. Ernestinek Benta Gorritik alkohola erosiz egiten zuen kontrabandoa.**

bazituen, kontrabandoarekin gau bakoitzeko euro bat inguru irabazten zuen, eta “karga pisutsua bazen gehixeago pagatzen zuten”. Finean, sei edo zortzi aldiz kontrabandoa pasaz gero, sasoi hartan fabrika hileroko irabazten zen jorrala ateratzen zuten.

Kontrabandoa legez kontrako jarduerak izanik, harrapatuz gero zigorrak ezartzen zituzten. Edonola, une historikoaren, kontrabandoko materialaren eta kopuruaren arabera gaztiguak aldatu egiten ziren. Janariarekin atzemanez gero, ez zuten normalki jakia konfiskatzen, isuna jarri eta kito. Abereen kasuan, konfiskatzea eta isuna jartzea izaten ziren zigorrak ohikoenak, baina lantzean behin kartzelara bidaltzeko arriskua ere bazegoen. Alabaina, pertsonekin atzematea izaten zen okerrera. “Portugalدارekin Espainian atxikiz gero, bederatzi hilabete eman behar ziren presondegi; Frantzian ez zen zigorrak jasotzen, portugaldarrak galdegiten zituzten-eta bertan lan egiteko”, azaldu digu Ernestinek.

Zigorrak saihesteko bitarteko ezberdinak erabiltzen zituzten eta horietako bat izaten zen eltzetzuak erostea. Arburuaren esanetan, “portugalدارren kontrabandoarekin apenas egiten zen, baina paketeekin bai. Erosia izan zen eltzetzuak kontrabandistek abisatzen zien eurak non egongo ziren, eta horrenbestez, kontrabandistek bazekiten nondik ez zuten pasa behar”. Dena den, Etxegaraik dioenez bazegoen erosia izan ondoren salatu zituenik ere, baina halere segituan jakiten omen zuten nor izan zen.

Jendarme eta garderen kasuan, ez ziren asko eroskeria onartzen zutenak. Baina hainbatek ez zuen gustuko polizia erostea, tartean Ernestinek: “Besteek emandako arropa dutenekin ez fidatu inoiz!”.

## **“Norbaiti kalte egitekotan, estatuei egiten genien kalte”**

**ERNESTINE, URRUÑAKO KONTRABANDISTA**

Kontrabandoa denentzat zela negozioa dio Arburuak, eta funtsean Espainiako eta Frantziako estatuei ere interesatzen zitzaizela. “Esaterako, fabrikak martxan jartzeko pailak pasatzea nahitaezkoa zen, eta hortaz, hein batean itxurakeria zen debekua. Konfiskatzen bazuten dirua ateratzen zuten, baina kontuan izanik zenbat tona pasatu zen, ez zen hainbertze harrapatu”. Arriskua, oster, hor zegoen, eta jazo ziren pasadizo tristeak, horren lekuko dira zauritu eta hildako ugari.

## **Kontrabandoak batu gaitu**

Gurean kontrabandoak izan duen garrantzia hizpide hartuta, Rosa Arburuak honako gogoeta egin du: “Batetik, mugaren alde bateko eta besteko euskalduntasunak, euskarak eta kulturak, eta bestetik kontrabandoak batu gaitu, benetako tradizioa izan baitu”.

Tradizio aberats honen inguruko kontuak familian edo inguruan kontrabandoa bizi izan duen jendeak dakizki, eta naturaltasunez solas egiten dute horretaz. “Kanpoko bati, ordea, norberaren familian kontrabandoa egiten zela esan eta narkotrafikatzailetzat hartuko gintuzke ziur”. Arburuak nabarmendu du arriskua dagoela hurrengo belaunaldiak gaiaz deus ez jakiteko. “Eskolan gazteek errege-erreginen gorabeherak ikasten dituzte, baina ez herriko historia, benetan jakitea merezi duena”.

Azken finean, lekukotasunak jasotzen dituzten argitalpenak eta ikus-entzunezkoak dauden arren, ez dago kontrabandoaren memoria bere baitan gordeko duen oroigarririk ez museorik. Hori bai, mugarriek zutik diraute: Espainiako eta Frantziako koroek 30 urteetako gerrari amaiera emanez 1659. urtean sinatutako Pirinioetako Bakearen ondorengotik, mugak zehaztu zituzten bi estatuek, eta mugan zehar mugarriak jarri zituzten. Bada, sarri kontrabandistek orientatzeko eta erreferentzia gisa erabili zituzten mugarri horiek berak izanzen dira kontrabandoaren gorabeherak hobekien ezagutzen eta haren memoria ondoan gordetzen dutenak. ■





## Eider Elizegi

# «Gauzetatik askatzeak izugarritzko askatasuna ematen dizu»

Eider Elizegi, mendizale alderraia. Bidez bide, haitzez haitz dabil arin, isil, apal eta alai. Mikroskopioa argazki makinarengatik trukatuta, orain irudiak bildu eta hauek hitzetara itzuliz bizi da bere furgonetxean. Motxila bete poesia.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

**Dena utzita mendira joan zinen, besterik ez. Zergatik?**

Momentu batean konturatu nintzelako aste osoa hirian ematen nuela asteburua iritsi eta Pirinioetara alde egiteko zain. Iruñean bizi nintzen orduan, han lana nuelako, eta lana nuen han etxea nuelako. Zirkulu itxi bat bezalakoa zen eta ikusi nuen jada horrek ez zidala hainbeste betetzen. Askok kostata eta ondo pentsatu ondoren, etxea eta dena utzi eta alde batetik bestera modu sinpleago batez bizitzen hasi nintzen.

**Blagean diozu zeure "dekonstrukzioa" egin zenuela.**

Bai. Normalean gure gizartean gehiagotzera jotzen dugu: gehiago izatera, gauza gehiago edukitzera, haztera... baina nik uste dut beharrezkoa dela atzerantz bidea egin eta gauzak sinpletzerantz jotzea. Gauza gutxiago edukitzera eta gauza txikienetara jotzea, aldi berean.

**Deshazkundea?**

Bai. Nik uste dut oro har aurrerantzko ihesean goazela eta, gainera, nora goazen oso ondo



jakin gabe. Askotan gauza gutxiago izateak aberastasuna ematen dizu. Denbora gehiago izatea ere oso garrantzitsua da dena mantsoago dastatzeko eta gauza txikiei arreta eman ahal izateko. Oso zaila da gure gizartean gauzak ez metatzea, inguruak horretara bultzatzen baitzaitu. Nik behintzat, ahalegin handia egin behar dut horretan ez erortzeko. Bestalde, gauza materialak oso pisutsuak dira eta asko lotzen zaituzte leku batera eta egoera batera. Horietatik libratu naizenean, arinago mugitzen naizela nabari dut. Gauza txikiak dastatzen ikasi behar da eta horretarako arrazionalki ikasi dugun gauza asko ahaztea komeni da.

### Zeren arabera, zer irizpiderekin mugitzen zara?

Askot inprobisatzen dut. Saiatzen naiz oso luzerako planik ez egiten. Momentuak eta une bakoitzean ditudan proiektuek eskatzen didatena egiten dut. Ez daukat erabaki itxirik. Egoera honek ez dakit zenbat iraungo duen eta horrek ez dit axola. Irekita nago. Inprobisazio puntu horrek asko erakartzen nau, batzuetan bertigoa ematen didan arren. Nire bizitza oso aldakorra da. Segun zertan nabilen, egoera aldatzen zait eta egoera desberdin horiek dastatzea asko gustatzen zait. Saiatzen naiz lasai egoten, baina gero ez naiz gehiegi gelditzen. Denbora falta zait beti. Une honetan proiektu asko dauzkat buruan eta denbora asko eskaintzen ari natzaio idazteari eta gauza berriak pentsatzeari. Oso gustura nago.

### Txikitatik harreman estua izan duzu naturarekin, ezta?

Herritik aparte eraikitako etxe batean biziginen gurasoak eta hiru anai-arrebak. Oso paisaia ederra zegoen eta ondoan harizti bat. Nik uste dut etxe horrek eta naturatik oso gertu, animaliez inguratutik bizitzeak, asko baldintzatu nauela. Oso haurtzaro polita izan nuen.

## Nortasun agiria

Lasarte-Orian jaioa, 1976ko abenduaren 2ko gau haizetsuan. Iruñean Biologia ikasi, doktoratu eta lanean aritu ondoren, orain dela bi urte inguru, aurreko guztia utzi eta mendira joan zen bere furgonetarekin, lehenbizi Andeetara eta Pirinioetara gero. Denbora tarte horretan bi liburu kaleratu ditu: *Mi montaña*, 2010ean Desnivel mendi literatur saria lortu zuena, eta orain berriki *El hilo gris*, eskaladaren ingurukoa. Vagamontañas bloga da mundauekiko bere zilbor hestea.

## Nire burua

**“Eskalatzaile txarra naiz, alpinista beldurtia eta argazkilaritza gustatzen zait baina ez nuke esango argazkilar bezainbeste naizenik. Bizitzan hor nabil. Neure burua vagamontañas bezala ikusten dut, alde batetik bestera alderai”.**

### Argazkizaletasuna aitarengandik jaso zenuen?

Aitak argazki asko egin du. Etxean laborategi bat zeukan eta txikitik ordu asko ematen nuen han. Ez dakit gauza hauek zein neurritan diren genetikoak edo ikasiak, baina nik asko jaso dut. Esango nuke nire pentsaera oso bisuala dela. Idazten dudanean ere, asko jotzen dut irudietara. Irudiak hitz bihurtzen ditudala iruditzen zait beti.

### Askotan azalpenak eman behar izaten dituzu zure bizimoduagatik?

Nik neure burua ikusten dut eta esaten dut “arrote, kaleko bat naiz”, neurri batean, nire lagunak eta nire familia, niretzako oso garrantzitsua dena, gertu eduki arren. Aldi berean inoiz baino gertuago nago nire funtsetik eta nik uste dut hori kanpotik ere nabari dutela eta horregatik jendea ez dela horrenbeste harritzen. Ikusten dute gustatzen zaizkidan gauzetatik gertu bizi naizela eta gustura nabilela. Horrek guztiak indarra ematen dit.

### Jende askoren ametsa da zuk egin duzuna.

Bai, askok esan didate hori, baina nik ez dakit zein neurritan den hori erreala. Hau bizimodu aukera bat da eta aukera guztiak bezala, baditu oso alde onak eta alde oso txarrak. Eta alde oso gogorrak ere bai. Nik hori onartu dut eta betetzen ez nauen egunean utziko dut. Jendeak esaten duenean “zer inbidia!”, seguru asko alde on horiek baino ez dituztela kontuan hartzen, eta txarrak ez dituzte ikusten edo onartzen. Norbaitek benetako inbidia baldin badauka, egin dezake nik egin dudana. Ez daukat ezer berezirik. Egia da une honetan ez dudala karga familiarrik, ez seme-alabarik... baina horiek guztiak ere aukerak dira. Ez dakit hainbeste jende prest ote dagoen horretarako.

### Zer da inoiz falta ez dena zure furgonetan?

Ordenagailua, argazki makina eta janaria. Askot gustatzen zait jatea. Su txiki bat daukat eta hor egiten ditut gauzak.

### Eta ordenagailurako argindarra?

Entxufeak dauden tokietan saretik hartzen dut elektrizitatea. Badut furgonetan ordeko bateria bat eta horrela moldatzen naiz.

### Ekonomikoki zertaz bizi zara?

Egia esan gastu asko ez daukat. Noizbehinka hitzalditxoak ematen ditut, udan aterpetxe batean aritu nintzen lanean, noizbehinka artikulak edo argazkiak eskatzen dizkidate aldizkariren batetik... Egunean egunekoa bizi dut.

## AZKEN HITZA

### El hilo gris

"Niretzat pintura katalogo moduko bat da. Harkaitzak estetikoki oso politak dira eta eskalatzen ari garenean jende gehiena ez da horretaz ohartzen, baina mantso joanez gero, eta arreta jarritz gero, izugarritzko irudiak ikusten dira. Hitzek eta irudiek islatzen dute eskalatzerakoan izan daitezkeen bizipen eta sentsazio txikiak. *El hilo gris* tonu poetikoan

dago idatzita. Eskalatzeari buruzko definizio desberdinak bildu ditut liburuan: harriaren gainean brodatzea, eskailerak asmatzea edota harkaitzean margotutako pinturen museoan paseo bertikal bat dastatzea, adibidez. Azken finean, norberak eskalatzea izatea nahi duen hura da eskalatzea.

Nire etxekoak, eta bereziki nire ahizpa Rebeka eta bere bikote Víctor, oso garrantzitsuak izan dira idazten hasi nintzenetik. Diseinatzaile grafikoak dira eta asko laguntzen didate niretzat arrotza den arlo honetan".

Mont Blancoko Goûter aterpean aritu zinen lanean mendira bizitzera joan baino lehen. Proba moduan piszinara bota baino lehen?

Bai, uraren tenperatura ikusteko eskua sartzea-edo izan zen. Eszedentzia eskatu nuen eta lau hilabetez han aritu nintzen. Oraindik ez nuen ausardia dena uzteko. Dena ondo joan zen, handik nire lehen liburua sortu zen eta orduan animatu nintzen urrats hau ematera.

Mendi aterpeak ere bikain ezagutuko dituzu honez gero...

Asko gustatzen zaizkit, oso leku bereziak izaten dira. Dena den orain hasi dira aterpetxe erosoagoak egiten jendeak hala eskatzen duelako. Mendira igo eta dutxatzeko ur berorik ez badute kexatu egiten dira batzuk. Horrek pena ematen dit. Batzuetan iruditzen zait mendi batera igo eta mendi gailurrean hotel batekin topo egin behar duzula. Nik goian ez ditut behar behean dauden erosotasunak, horretarako behean gelditu eta kito. Leku haietan halako erosotasunak edukitzeak ingurumenerako ere ondorio kaltegarriak ditu eta hain eroso ibili nahi izate horrek ni behintzat naturatik bereizten nau. Dena den, furgoneta daukadanetik ez dut horrenbeste jotzen aterpetxeetara.

### Alegoria

"Niretzat mendia eta eskalada bizitzaren alegoria sinplifikatuak dira. Norbera oso biluzik dago mendiaren aurrean; eta eskaladan, bizitzan egunero senti ditzakezun emozio guztiak azpimarratuta daude: beldurra, ezina, arazoak gaitzitzea, gozamena, nekea... Gauza horiek guztiak dastatzeko eta aztertzeo aukera ezin hobea da eskalada".

Itxurakeria asko mendi giroan?

Badirudi mendian muturreko gauzak bakarrik baloratzen ditugula. Eta ematen du gauza zailak, konplikatuak ez badituzu egiten ez duela merezi. Ni azken bolada honetan atzera noa horri dagokionez eta bidexketan ibiltzea atsegin dut. Gure gizartean oso lehiakorak gara eta hori mendian ere ikusten da.

Mendiak beldurrik ematen al dizu?

Beldurtia naiz eta mendiak errespetu handia ematen dit. Nire ustez askotan jendeak ez du baloratzen mendia oso handia dela eta gu, aldiz, oso txikiak. Errespetu hori mantendu behar da. Goûterren nengoenean ia egunero genuen hildako bat. Ezin dugu dena menperatu, eta eskerrak. Mendian hori oso garbi ikusten da. Hemen behean uste dugu nahi duguna egin dezakegula eta hori ez da egia, oker gaitza. Hori ikustea oso polita da.

Eta zeure buruarekin zer moduz bizi zara?

Ondo. Guztiok bezala. Batzuetan oso gustura, besteetan ez horren gustura, denetarik, baina ondo.

Egunetan inorekin hitz egin gabe egotea gogorra egiten zaizu?

Nahiko bakartia naiz, neurez. Ez zait gustatzen jendetza, baina baditut nire lagunak eta

**bardoak** 2012

naifarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea

naifarroako bertsozale elkartea

haztutzailea

**argia**



**BIGARRREN FASEA**

MARTXOAREN 27IK MARTXOAREN 18RA

(6 SAIO)

**FINALA**

MARTXOAREN 31N, LEITZAN

HIRU TALDE, BEDERATZI BERTSOLARI

Informazio osoa eta zurrerak

[www.BARDOAK.com](http://www.BARDOAK.com)

familia, eta oso presente dauzkat oso garrantzitsuak direlako niretzat. Dena den, boladak daude. Azkenaldi honetan ez nago jendez inguratuta baina baditut lagun batzuk inguruan. Orduak pasatzen ditut bakarrik egunean zehar baina ez nago erabat bakarrik.

**Bikotea duzu, baina ez zarete elkarrekin bizi.**

Bikote bizitza ikusteko modu asko daude. Orain pertsona honekin harremanak eta bizimodua ikusteko moduan bat nator. Furgoneta auzo lagunak ginela ezagutu genuen elkar. Bidaia elkarrekin egin ditugu Andeetan, Marokon, eta bakoitzak bere bizimoduan dituen tarteetan elkartzen gara. Oso polita da. Horrela dena beti berria da eta aspertzeko aukera gehiegi ez dugu. Egun bakoitza opari bat bezala bizitzeko aukera da.

**Eta amatasuna, adibidez, zure proiektuen artean dago?**

Oraingo behintzat, nire bizimodutik urruti gelditzen zait. Umeak izateko gutxieneko azpiegitura bat behar da eta nik ez daukat. Gainera neure burua beste gauza batzuetan dago orain. Oso ederra iruditzen zait amatasu-

## Bizitzeko erak

**"Nik uste dut idaztea ere abentura bat dela. Bizitzeko badira mila modu. Hori banekien, baina orain argi ikusten dut nire bizimodu honi esker. Hirian zaudela hori ez duzu ikusten eta niretzat oso interesgarria da".**



na eta asko baloratzen dut. Oso presente daukat, baina bizitzan aukeratu egin behar da eta nik, oraingoan, beste gauza asko ditut egiteko.

**Beatxi gure bihotzean:** Vignemalen hildako lagun baten omenez eginiko proiektuaren barruan Marokora egin berri duzu bidaia. Zuk egin dituzu horren inguruko testu eta argazkiak.

Hilabetez ibili gara. Nire lagun batek eskalada bide bat ireki nahi zuen eta beste lau pertsona joan gara berarekin. Zoragarria izan da. Nik azkenean ez nuen batere eskalatu. Bertako jendearen bizimoduak eta jendeak berak asko erakarri ninduten eta bukatu nuen herrixketako jendearekin haien etxeetan bizitzen. Beraz, paretak ez nituen ukitu ere egin eta gainera sekulako hotza egin ten zuen. ■



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunaren artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

# Erresistentziaren eredu

Lanak hasi gabe daude, baina herritarrak ez daude zain. Zaharra bezain indartsua da Italiako Alpeetako Val di Susako populazioak AHTri erakutsi dion aurkakotasuna. Herri asanbladen besapean hezurmamitu den mugimenduak zeresan handia du Italiako erresistentzia zibilaren historian.

ANE IRAZABAL

Argazkiak: Cosimo Caridi

ITALIAKO 60.000 biztanleko bailara batek 23 urte daramatza Abiadura Handiko Trenari ezezko irmoa ematen. Val di Susa, Tuingo probintzian, herri erresistentziak Lyon eta Turin batu nahi dituen trenaren lanak berandutzea lortu du. Atzerapenak, baina, ez dira nahikoa herritarrentzat eta azpiegitura behin betiko gelditzeko borrokan jarraitzen dute. Italiako beste mugimendu batzuentzat erreferentzia izaki, oinarritik egindako lanari esker lortu du ekimenak atxikimendua.

Alberto Perino-ri, mugimenduko bozera-maile nagusiari, begiak samurtzen zaizkio hastapenak gogoratzen dituenen: “1989an, AHT eraikitzeke proiektuaren inguruan hitz egiten hasi zirenean, beste borroka batzuetatik gentozen gu, batez ere, gerora bailara zeharkatu zuen Torino-Bardonecchia autopistaren kontrako erresistentziatik”.

Bailaran ordurako bazegoen trenaren kontrako errezeloa, eta askok aho batez errefusatu zuten Giulio Andreottiren Gobernuak eskainitako proiektu exekutiboa. Tuingo eskola politeknikoko irakasleak izan ziren Susako biztanleei trenari buruzko informazio tekniko eskaintzen lehenak.

“Garai hartan lau katu ginen. Orain bailarako populazioaren gehiengoa gara”, hausnartu du Perinok. Nola lortu dute, ordea, mugimendua indartzea? “Herri asanbladak antolatuz zabaldu dugu mezua. Kaleko batzarren bidez biztanleei era argian azaldu diegu zertan datzan proiektua, baita gure oposizioaren arrazoi politiko, ekonomiko eta moralak ere”. Adin, fede eta estratu sozial desberdinetako lagunak batzea irizten zaio Perinori mugimenduaren indarraren funtsa: “Hiru hankako aulkia osatzen du ekimenak. Hanka

batean herritarrak gaude, bestean teknikariak eta hirugarrenean tokiko administrazioa”.

Aulkia, baina, hankamotz geratu zaie maiz. Ekintzaileak kexu dira ibarreko zenbait udalek herritarrei proiektuaren inguruko informazioa eskaintzea ukatu dietelako. Val di Susako biztanleak ordezkatzeko dituzten heinean, interes ezkutuak aipatzen ditu Perinok jarrera hori azaltzeko. Italiako politikaz hitz egitean mafieren presentzia agertzen da ezinbestean. “Politikak kostu bat du, eta AHTk diru iturri berria eskaintzen die alderdi politikoei eta alderdiak kontrolatzen dituzten mafiei”.

**“Politikak kostu bat du, eta AHTk diru iturri berria eskaintzen die alderdi politikoei eta alderdiak kontrolatzen dituzten mafiei”**

ALBERTO PERINO

## Makinak geldirik

Alpeak zeharkatu nahi ditu Lyon eta Turin batzea helburu duen trenak. Eremu geografikoak erakusten dituen zailtasunak medio, Magdalena izendatu den tunela bilakatu da Frantzia eta Italia lotuko dituen trenbide

berriaren bizkarrezur. AHTren aurkako mugimenduaren borroka ere tunel estrategikoa gelditzera bideratu da ezinbestean. Baina proiektua galdera ikur handi bat bilakatu da, LTFak (Lyon Turin Ferroviaire) eta Italiako Gobernuak ez baitute informaziorik eskaintzen. Datuen urritasuna loturik dago, hala uste du Perinok, azterketa geologiko eta geografiko faltarekin. Tunelaren diagnostikoa egiteko proiektu exekutiboa berandutu egin zaie azpiegitura kudeatzen dutenei eta Susako herritarrak beldur dira presak ez ote duen azterketen kalitatea murriztuko. Ekintzaileek salatzen dute amianto eta uranioa mugitu ditzakeela obrak. “Bi mineral horien eragina oso kaltegarria litzateke. Dagoeneko egin diren azterketek erakutsi dute geruza akuiferoak izugarri kaltetuko direla”, nabarmendu du Elleonora Ponte ekintzaileak.



Ekintzaileek salatzen dute amianto eta uranio mugitu ditzaketela obrek eta eragina oso kaltegarria izan daitekeela. Irudian, polizia herritarrek Magdalenatik bota zituen eguna, 2011ko ekainaren 27an.

Hain zuzen, tunelaren aurkako desobediencia zibilaren sinboloa da Magdalenako erresistentzia gunea. 2006an, Val di Susako biztanleek kanpaleku bat osatu zuten tunela hasi nahi zuten eremuaren ondoan, lanak blokeatzeko helburuz. Poliziak behin baino gehiagotan kanporatu zituen, baina herritarren presioak trenaren ibilbidea aldatzera derrigortu zuen Italiako Gobernuak. Mugimendua, ordea, ez zen konformatu. Iragan maiatzean ehunka ekintzaile berriz ere ezarri ziren eremuan eta Magdalenako Errepublika Askea deituriko komunitatea osatu zuten. Kanpalekuak aurretik martxan jarritako Venauseko komunitatea izan zuen ispirazio iturri.

Ekainean, baina, poliziak eremutik joanarazi zituen herritarrek, tunelaren miaketa lanak hasi behar zirelakoan. “Mendian eustea erabaki genuen, baina gas negar-eragileak eta indarkeria erabili zituzten gure kontra, bertatik bota gintuzten arte”, gogoratu du Perinok. Ehunka lagun zauritu ziren udako egun hartan, eta hedabideek ordura arte ahaztuta zuten mugimenduari eskaini zioten berriz ere arreta. Ordutik, zulakarien eta poliziaren presentzia begi-bistakoa egin zen Susako kaleetan. Lanen hasiera bazetorrela zirudien. Geroztik, geldirik daude makinak. “Herritarrek Magdalenatik botatzeko aitzakia besterik ez zen izan. Oraindik ez dute egin tunela

zultatzen hasi baino lehenago egin behar den analisi geologikoa, beraz, obren aurreko azterketa fasean ari dira”, nabarmendu du mugimendua ordezkatzeko duen abokatu batek.

Europatik datozen diru-laguntzak ez galtzeko zerbait egiten hasi direla erakutsi nahi dutela uste du Perinok: “Osagai guztiak mahai gainean jarri, baina janaria prestatzen ez dakien sukaldari baten gisan ari dira jokatzeko; soilik gu kikiltzeko”.

### Europa mailako borroka

Val di Susan hondeamakinak martxan jarri ez diren arren, eremu militartzat jo dira trenaren ibilbidea zeharkatuko duten lurak. Ingurua itxita dago ekainetik eta poliziek kontrolatzen dute uneoro. Lur horietako jabeek besterik ez dute bertara hurbiltzeko eskubidea. Hala, egunero 90.000 euro gastatzen ditu Italiako Gobernuak, poliziaren sindikatuaren hitzetan, obraren segurtasuna bermatzeko. “Ordena publikorako beharrezkoa dela argudiatzen dute, baina eskandaluzkoa da hiritarrei sarbidea blokeatzea”, dio mugimenduari aholkularitza administratiboa ematen dion beste abokatu batek. Tokia ixteko ezarri zen ordenantzen epea amaitu dela diote ekintzaileek, eta beraz, eremua nola dagoen ikusteko eskubidea aldarrikatzen dute.



Arreta, baina, Italiako Gobernuan baino, Europar Batasunean jarri du AHTren aurka-ko mugimenduak. Trena eraikitze-ko mekanismoak berdinak omen dira Europa zabalean. Pontek hala ikusten du: “Propaganda ofizialak dio estrategikoa dela, lana eta garapena ekarriko dituela eta onartzen ez badugu Europatik at geratuko garela. Ideia horiek bi erreminta nagusiren bidez inposatzen dituzte: hedabideak eta indar militarra”. Hori dela-eta, Abiadura Handiko linea ezberdinen aurka oposizio bateratu bat egiteko Europako hainbat mugimenduk Hendaia-ko Gutuna idatzi zuten 2010ean. Euskaldunek, katalanek, bretoiek eta ingelesek sinatu zuten, besteak beste, testua. AHTren aurkako borroka, tokiko testuingurutik Europako markora pasatzea da helburua.

2011ko abuztuan, pauso bat harago joan eta Alferrikako Azpiegituren Kontrako Lehen Nazioarteko Foroa antolatu zuten Italian. Europari egindako eskaerarik funtsezko-ena, azpiegitura hauen inguruko erabaki ahalmena herritarrei itzultzea izan zen. Trenaren eraikuntzak “demokrazia zero” bezalako esloganak berreskuratu zituen foroko partaideen eskutik. Europar Batasunaren “kontraesanak” ere agerian utzi nahi izan zituen foroak: “Diru-laguntzak eman ditu [Europak] hemengo mahastiak berreskuratzeko, baina aldi berean, mahasti horiek suntsituko dituen AHT finantzatzen ari da”, nabarmendu du Pontek.

### Hedabideen papera

Val di Susako bere etxean, komunikabideen inguruan hausnartu du Perinok: “Oro har, erabat distortsionatu dute AHTren aurkako mugimenduaren izaera. 2005era arte ez-ikusiarena egin zuten gurekin, eta ondoren taldea kriminalizatzen hasi ziren, batez ere, Italiako beste mugimendu batzuentzat erreferentzia bilakatu ginenetik”.

Ezkerrean, iragan abenduko manifestazio batean jendea ihes egiten poliziaren gas-negar eragileen ondorioz. Eskuinean goian, polizia ekaineko istiluetan. Alboko irudian, Alberto Perino AHTren aurkako mugimenduko bozeramailea.



**“Europak diru-laguntzak eman ditu mahastiak berreskuratzeko, eta aldi berean, mahastiak suntsituko dituen AHT finantzatzeko”**

**ELLEONORA PONTE, EKINTZAILEA**

Anarkismoa eta anti-sistema dira, besteak beste, hedabide nagusiek AHTren aurkako mugimendua zikintzeko erabiltzen dituzten terminoak. Definizio horien artean ez dute indarkeria hitza erabiltzea ahazten. Hain zuzen, indarkeria egotzita, trenaren aurkako ekintzaileen kontrako sarekadak areagotu ditu poliziak azken boladan. Mugimenduko bozeramaileen ustez, poliziaren eta hedabideen presioa inoiz baino gogorragoa bilakatzen ari da. “Ezkutatu nahi dute gure izaera transbertsala. Burgesak eta squatterrak, anarkistak eta sinestunak, eskuindarrak eta ezkertiarak, guztion ondasuna defendatzen ari gara”, adierazi du Pontek.

Italiako mugimendu zibil zaharrena izaki, ardura puntu bat sumatzen zaio Perinori: “AHTren aurkako erresistentziak erakutsi digu telebista itzali eta plazara hurbildu behar garela. Datoren belaunaldien erantzukizuna gurea da eta horri aurre egin behar zaio”.

Denborarekin denak galtzen du indarra, borrokarako berotasunak nagusiki. Horregatik da deigarria bi hamarkaden ostean mugimenduaren osasun onaz jabetzea. Perinok uste du herritarren indarrak gera dezakeela proiektua. “Nekatu garen? Ez horixe! 23 urtez eutsi dugu, beraz, borroka dezagun beste horrenbestez, besteak aspertzen diren arte”. ■





ZERTAN da espainiar ZINEMA ?



« BIZI NAIZEZEN LARRUA »



« GAIZTOENDAKO BAKERIK EZ ! »

# TTAKUN (H)ERRENKA

## Sautrela, hezibide sentimental bat

**P**oligrafoa gora eta behera ari ginela iritsi zaigu *Sautrela* kenduko dutelako albiste aski penagarria. Zehaztapenak etorri dira gero, saioa 2013an itzul “daitekeela” entzun dugu. Posible izateagatik, ia dena da posible. Ez ditzagun ahantz, *Sautrela* bezala poligrafo bidezko telebista eredutik aldentzen ziren *Posdata* eta *Zinemateka* desagertuak, edo beti kolokan ibiltzen den Orain saioa. Bai, kulturzaleok ere zergak ordaintzen ditugu zintzo-zintzoki, astean telebista ordutxo batzuk merezi izateko lain bai behintzat. Ez dugu sobera eskatzen; konforma errazegiak gara, eiki.

Nire belaunaldiko literaturzaleontzat *Sautrela* izan da, ziur aski, euskal literaturak medioetan izan duen erreferente behinena. Niretzat, bederen, hala izan zen. Nire hezibide literarioaren —eta hortaz, sentimentalaren— puska handi samarra hartzen du *Sautrelak*. Ondo gogoan dut nola ikusi nuen behin Juan Gartzia, *Godoten esperoan* itzuli eta argitaratu berritan, Samuel Becketten mundu berezi hari buruzko azalpenak ematen. Uda hartan irakurri nituen irlandarraren antzerki obra ezagunenak, eta handik egin nuen Eugène Ionesco-rakoa. Hamar urte beranduago, masterreko amaierako lan gisa, Beckett buruzko tesina aurkeztuko nuen ia 600 kilometro urrunago, Bartzelonan. Hilabete batzuen buruan, berriz, Reading-o Samuel Beckett fundazioko liburutegiko apal batean topatuko nuen Gartziaren itzulpena, estreinakoz *Sautrelan* ikusitako hura, 1.000 kilometro urrun ordukoan.

Euskal Herri zabalean apenas dugu espaziorik literatura unibertsalaz hitz egiteko euskaraz, eta *Sautrela* zen azkeneko gotorlekue-tako bat. Literatur saio gutxik hitz egingo zuten halako begirunez “beste” literaturez, txokokeria txepelez libro; *Sautrela*, euskal literaturari buruzko programa baino,

MARC CAMPÁ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padrón

literaturari buruzkoa baitzen. Gao Xingjian eta José Saramago nobel saridunak, Antonio Tabucchi, Marie Darrieussecq, Quim Monzó, Antonio Lobo Antunes, Enrique Vila-Matas, Pavel Kohout, Ismael Kadaré, *Sautrelatik* igaro dira. Baina ondo irakatsi digu *Sautrelak*, halaber, nortzuk izan ziren

James Joyce, Franz Kafka, Italo Calvino, Anton Txekhov, Augusto Monterroso, Simone de Beauvoir, Truman Capote, J. M. Coetzee, Marguerite Duras, Jorge Luis Borges, Jack Kerouac.

Nire kideetako ugari lan egin dute saioan eta ausartuko nintzateke esatera haientzat ere eskola aparta izan dela; atera kontuak, Eider Rodriguez, Edorta Jimenez, Kirmen Uribe, Jon Benito, Lander Garro dira handik igaro direnetako batzuk. Ia denboraldi guztietako zuzendari eta aurkezlea, Hasier Etxeberria, aipatzeke utzi gabe, noski.

Baina literaturaz hitz egiteaz aparte, *Sautrela* bera ere, harribitxi izatera ailegatzen zen maiz. Errealizazio ezin finagoarekin, musika bero bezain ederrarekin, irakurketa zehatz eta zainduekin, nekez aurkitzen ahal zen halako mailako literatur saiorik inguruotan. Eta hori guztia aurrekontu apal-apalarekin, ezagun denez. Baiki, itzelezko lana egin dute, orobat, errealizadore, kameralari eta enparauek.

Ez dakit zelako audientzia emaitzak izango zituen. Jakin badakit, ordea, inongo audimetrok ezingo duela kalkulatu arestian aipatutakoen balioa, ez eta Pello Lizarralde, Josu Landa, Anton Garikano, Lourdes Oñederra, Xabier Olarra, Ur Apalategi, Koro Navarro, Amaia Lasa, Joxanton Artze, Itxaro Borda, besteren artean, literaturaz hitz egiten ikustearena. Ez dezagun, ez dezaten, ahantz: badi-ra egon telebista-aparatura atxikitzen ez diren neurgailuak. Adiorik ez. ■



«  
Nire belaunaldiko literaturzaleontzat  
*Sautrela* izan da, ziur aski, euskal  
literaturak medioetan izan duen  
erreferente behinena. Niretzat,  
bederen, hala izan zen  
»

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

## Gure egutegia

S

arkozy kanpainan sartu da. Inketetan zenbaki oso kaxkarrak ateratzen zituen joan diren asteetan, kazetari askok ia-ia galtzailatzat joz. Hollande nahiko goiz sartu zen kanpainan, goizegi ere beharbada, eta prentsa Hollanden aukerak handiagoak zirela errepikatzen aritu da etengabe. Prentsak baina, Sarkozy maite du, prentsa gehiena eskuetan du, kontrolpean, oso sare eragin-korrek eraiki ditu.

Aldi honetan ere kanpainako bozeramaile emaztea da, Nathalie Kosciusko-Morizet, ekologiako ministroa. Aitzineko kanpainan irekiduraren alde jokatu zuen, Rachida Dati-ri bozeramaile postua emanetz, hura etorkin alaba baitzen. Aldi honetan, jarrera klasikoagoa hautatu du Front National-ari heldulekurik ez uzteko. Eskuin muturreko hautesleen bila joanen baita Sarkozy. Eskuin muturra beharrezkoa du lehen itzulian aitzinean egoteko, gogor joko du Marine Le Penen aurka haren hautesleak erakartzeko. Prentsak, badirudi, kanpaina honetan Front Nationalarekiko jarrera kritikoa izanen duela. Le Penek hedatu nahi lituzkeen adierazpenak kontrolatzen ditu eta medioetan zuzenketak egiten dizkiote, alegia, gezurrak direnak, gezurrak direla plazaratzen dituzte. Prentsak Le Pen bigarren itzulian egoteko aukera ez duela lagunduko erran daiteke.



GAIZKA IROZ



Frantses politikak  
esperantza gutxi  
piztuko du kanpainan.  
Aldiz, segur izan  
gaitezen, espektakulu  
asko izanen da!



Sarkozyren lehen mitina, Marseillan, erraldoia izan da, 15.000 ikusle, mediatikoki ongi eramana, beraz, lehen bultzada bikain aterazio. Orain ikusiko dugu ea herritarrek orain arte egindakoa ahazten duten, bereziki erretreterekin egindakoa. Hollanden programak ez du interes handirik, ezta kemenik ere. Kanpaina oraintxe hasia da, baina ematen du irabazlea ezaguna dela.

Horra sei astez aktualitatea, lehentasuna izanen dena frantses munduan, hori baita frantses egutegia, Paristik manatzen dena. Paris baita zentroa, zilborra. Martinika, Mayotte, Kaledonia Berria edo Euskal Herrian beste egutegirik badagoen ez zaie interesatzen, denek Parisko egutegi horri jarraitu behar diogu. Sarkozy azken mitinetan zioen berari esker Frantziak, krisi denboran, katastrofea saihestu zuela, hain politikari ona baita! Ez da ohartzen botere horren egozentrismo bera katastrofea dela, gutxiengo bati kasu egiten diola soilik, gaur egun aurrera joateko aniztasuna, tokiko errealitatea kontuan hartu behar dela? Frantses politikak esperantza gutxi piztuko du kanpainan. Aldiz, segur izan gaitezen, espektakulu asko izanen da!

Hemen bake prozesua dugu, erantzuna atxilotetak izan dira. Intza Oxandabaratz preso izanik erditu beharko da haurraz? Hau da gure egutegia. ■



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



gora eta biktimak behera. Orain, frankismoarenak. Eta jakin dudanez, Lakuak izendatu behar ditu horiek nor diren erabakitze-ko komisioa osatuko dutenak. Ez dakit ezer gehiago. Badakidana, sortu gintuzten inguruetan, etxe bakoitzeko bat gutxienez bazela. *Batallón de trabajadores*en erreferentziaz igaro genuen haurtzaroa, geroago zehazki hura zer izan zen jakin genuelarik. Suertekoak gu, haien seme-alabak, haietako askok zuten ahaideren bat eraila, lagunmin bat frentean akabatua, mende laurdenean gurasoak isilean gordea, gure belaunaldiak argira ekarri arte atsedetik gabe bizitako egoera duzue. Ez

### Biktimak

zuen ETak hau hasi, ETarik gabekoa izan zen gu jaso genuen gerra ondorena, etxetik bortxaz urrundutako gurasoen senideen argazki gordeena. Gure inguru hurbilenetan nekez aurkituko duzu torturatua izan ez den norbait, biktima izateko bokaziorik ez, eta Donostiako Antiguan, Ondarretan, Amaran txikitua izan ez denik: López, Losada, Granaino, Manzanas, Sainz, gure erraietan itsatsitako izenak dituzu. Torturatutako gehienak ez ziren ETakoak, oro da ETA ez da Garzonen asmakizuna. Eta ez digute barkaziorik eskatu, ez dugu behar, ez dugu barkatuak izateko premiarik. ■



Xabier Etxaniz Erle

IDAZLEA

## Barkamena eta damua

B

arne ministro jaunak argi eta garbi esan du, barkamena eskatu behar da egindako kalteengatik eta damua erakutsi. Badakit, jokabide hori oso kristaua dela, aurreko

*Defensor del Pueblo* delakoak oso garbi du barkamenak ez duela zentzurik, berak inoiz ez duela barkatuko (ikuspegi judutarrari dagokion bezala). Baina, orain esaten didate egindakoaz damutu egin behar naizela eta, gainera, barkamena eskatu behar dudala. Ni, aldiz, harro nago egindako guztiaz. Ziur aski zenbait kontu beste modu batean egingo nituen/genituen; agian odol isurketarik gabe, edo gutxiagorekin; beharbada komunikabideen eragin txikiagoa neurtuz; baina gure ustez zuzen aritu ginen; egoerak, beharrak, gure aberriak hori dena eta gehiago egitera behartuta ere gustura onartu genituen zailtasunak. Urte zail eta latz haietan erabaki sendoak eta, era berean, bortitzak hartu behar ziren.

Orain, demokrazian omen gauden egoera honetan, ziur aski beste modu batean jokatu nukeen; helburu berberak lortzeko bestelako bideak bilatzen saiatuko nintzatekeen, ez haiekin ados ez nagoelako, oraingo gizarteak hala eskatzen duelako baizik.

Barkamena eta damua eskatzen zaizkit beraz, baina ni ez nago prest. Aitzitik, harro



ALEX LARRETXI



Ni joan berria naiz,  
damurik eta barkamen  
eskaerarik egin gabe.

Nik arrazoia nuelako,  
nik hori dena  
aberriagatik  
egin nuelako



nagoela esan dut eta urte haietako sakrifizioa guztiz beharrezkoa izan dela uste dut. Orain gauden egoeran egoteko, orain gauden bezala, gizarte honetan bizi ahal izateko, urte haietako borrokak, heriotzak, beharrezkoak izan dira. Beraz, ministro jauna, jai duzu nigandik damu zantzu txikiena ere espero baldin baduzu. Heriotza haiek, sufrimendu guztia, gizarte esparru batzuetan zabalduko beldurra eta ikara, horiek denak eta gehiago behar-beharrezkoak izan ziren. Bai, bestela komunistek, separatistek hartuko zuten boterea. Gure gizarte baketsua zalantzan jarriko zuten. Nola ausartzen ziren lan baldintza hobek eskatzen, lana eskaintzen genienean? Nola eska zezaketen beren ideiak adieraztea?

Ni joan berria naiz, damurik eta barkamen eskaerarik egin gabe. Nik arrazoia nuelako, nik hori dena aberriagatik egin nuelako. Ez al dituzue ikusi errege familiak eta gobernuak kideak nire hiletetan?

Eta, amaitzeko, ez dezatela martxoaren 3koen familiarrek, egun haietan jipoitutakoek, kolpatutakoek, atxilotutakoek... historia berriidatzi nahi. Horixe bakarrik falta zen! Historia bakarra da eta nik, On Manuelek, Galiziako hilobi honetatik idatzia. ■



TXANDAN

Edn Zelaieta



Hiru urte eta erdi joan dira aita naizenetik eta askoz gehiagotan mintzatu izan naiz gurasotasunaz emakumeekin gizonekin baino. Era berean, askoz emakume gehiago mintzatu izan dira aitatasunaz nirekin gizonak baino. Azkenaldiko lege zenbait gorabehera, denbora luzean nagusi eta gailen izan den rolen banaketa sexistak indarrean dirau gure artean. Gure barrenean.

Aitatasunaren gaineko kezka edota jakin-mina agertzeak —orain txoko honetan ari naizen bezala, bide batez— sexuen arabera banaketa garbia ekarri

Ai, aita!

didala ohartua naiz, bai eta euskarazko gure mundutxo honetan ere: esku batean aise sartuko liratekeen salbuespenak salbuespen, emakume sortzaileek bakarrik aipatu didate zerbait nik plazaratutako galderez nahiz noraezaz; gizonengandik, aitzitik, ez dut *feedback*-ik lortu.

Nire irudiko, gizonok aitatasunaz jarduteko interesa askoz txikiagoa izatea esanguratsua da oso: 40 urtetik beherako aiten artean erraz nabari da aita izatearen funtzioa bigarren mailako hizpidea dela. Tamalez, aitatasuna ez da belaunaldi berriko aitok mugitzen gaituen aferra. Oraindik ez, bederen. ■



## ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

# Urruzuno

2

004ko irailean, zorteak oso noizean behin egiten dituen keinu horietako bati esker, esperientzia eder bat bizitzea tokatu zitzaidan: hamar egunez, Irlandara bidaiatu nuen hogeit lagun baino gehiagoko talde batekin, denak literaturaz gose eta sekula asetzeko gogo gutxirekin. Nirekin batera, Fernando Morillo eta Patxi Gaztelumendi, eta, batez ere, lehen aipatutako hogeit horiek, hogeit gaztetxo, hogeit neska-mutil buztin berria baino moldagarriagoak, barruan zuten mundua hitzez adierazten asmatu, eta, ondorioz, Urruzuno saria lortu zutenak. Hamar egun zirrargarri, berdin-berdin izan zirenak zirrargarriak irabazteko hainbeste zuten gazteentzat zein galtzeko hain gutxi genuen helduontzat.

Gauetako batean, Donegalen, parranda egin genuen hoteleko logela batean. Hurrengo goizean, deiak jasotzen hasi ginen Euskal Herriatik, ez zuzenean sariketaren antolatzaileen deiak, baina bai sari-ketarekin erlasionatutako esfera batzuetatik. Hariaren beste aldeko ahotsak argi esan zidan aurreko gaueko parranda haren ondorioz, beharbada, lehiaketa lurperatuko zutela, aztertuko zutela aukera hori. Eta ez zidan esan, baina iruditu zitzaidan esan nahi zuela aspaldi zebiltzala lurperatu nahian, eta ez zekitela nola.

Ordutik, Urruzunok beste zazpi edizio izan ditu, iaz arte, orain krisiaren aitzakia heldu baita. Ordutik, Urruzunok izango zituen beste hainbat parranda, gure parranda baino lehen beste mila izan ziren moduan, batzuk oso sonatuak. Baina ez diot konspirazioaren teoriari heldu nahi, ez noa hortik. Onartu dezagun krisia izan dela erruduna, eta ahaztu dezagun goiko instantzietan Urruzuno deserosotasunez ikus zitekeela, izatez kulturala zen bidaia batean parrandak ere egiten zirelako. Bada, krisiarena onartuta ere, izuga-



INIGO AZKONA



Krisiak bota du Urruzuno, zer diren gauzak, justu albiste hau argitaratu eta astebetera jakin genuenean EITB erakunde publikoak 22.000 euro ordainduko dizkiola hiler Patricia Gaztañagari. Bi gai diferente dira, bai, baina diru publikoak dira hala ere, dena oso deigarria eta lotsagarria



irudia:

Antton Olariaga

rria da nolako erraztasunez baztertu duten lehiaketa hau egun batetik bestera, alternatiba merkeagoak ere albo batera utzita. Ez daitezela orain etorri talentu-ihesari eta panningi buruz hitz egitera: talentu hauek ez digute inora ihes egingo, ez behintzat literatura hemen baino hobeto kontsideratzen den lekuren baten bila, baina talentu gazterik badugun ere ez dugu jakingo orain, talentua erakusteko aukerarik ere ez baitiegu eskainiko etorkizuneko idazle, bertsolari, zinegile edo dena delakoei. Krisiak bota du Urruzuno, zer diren gauzak, justu albiste hau argitaratu eta astebetera jakin genuenean EITB erakunde publikoak 22.000 euro ordainduko dizkiola hiler Patricia Gaztañagari. Bi gai diferente dira, bai, baina diru publikoak dira hala ere, dena oso deigarria eta lotsagarria.

Gure indar guztiekin babesten ditugu, eta eskerrak, dirurik gabe geratu diren herri-ekimenak, ataka larrian dauden komunikabide eskaldunak eta ahalegin pertsonaletik sortutako proiektuak, baina inpresioa daukat bertan behera geratzen diren beste ekimen hauek, publikoak, ofizialak edo nahi den moduan deitu daitezkeenak, sarritan ahaztu egiten ditugula, euren ofizialtasunaren ondorioz kariño berezirik ez diegularako, edo herriarenak baino gehiago izate abstraktu batenak iruditzen zaizkigulako. Baina, argi hitz eginez, eta gazteei dagokienez, Urruzuno zen gure lehiaketa literariorik onena, sortzaile askoren etorkizun oparoaren oinarri.

Urruzuno, sari bat baino gehiago, topalekua zen gazte horientzat, aukera bat kontratatzeko ez zirela uste zutena bezain arraroak, badaudela munduan euren moduko buru sortzaile gehiago. Bidaia gutxienekoa da: Irlandaren orde, jarri Galizia edo Iratiko etxolak, eta Urruzunok funtzio bera beteko du, krisiaren aitzakiarik gabe. ■



## BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

### Etsipenaren aurka jarriak



XDZ

#### I

Nahiz mundura ez garen  
sufritzera etorri,  
negarrak izaten du  
jaiotza jatorri,  
baina ahal dela ez da  
egin behar sarri...  
Sei bertso goxo gura  
nizkioke jarri  
tunelean argirik  
ez dakusan horri.

#### III

Ez da egunsentirik  
gabeko gau hotzik,  
ez da berriz osatu  
ezin den bihotzik,  
ez da azken penarik,  
ez betiko pozik,  
ez minak arintzeko  
modu efikazik,  
sentitutik ikasten  
saiatzea baizik.

#### V

Itsasoa ezin da  
beti egon bare,  
olatuak astintzen  
dute alde alde.  
Bizitza bizitzeko  
bi aukera daude:  
neurrian bizi poz  
zein penak, parez pare,  
edo pozak zein penak  
bizi neurrigabe.

#### II

Dena ikusten duzu  
triste eta txarto,  
esperantzarik ere  
ez duzu biharko...  
baina ez ote zara  
ohartu ahalko  
orain triste zaudela,  
begi bete malko,  
inoiz zoriotsua  
izan zarela!

#### IV

Kezkaren bat bihurtu  
zaizunean traba,  
jokatu esaerak  
dioen gisara:  
“Zergatik arduratu  
konpongaitza bada?  
Eta konponbiderik  
baldin badu, hara:  
zergatik arduratu  
konponduko da ba!”.

#### VI

Ustez lehenago bizi  
zinen ametsetan  
minak azaldu arte  
bizitza benetan,  
baina poza etortzen  
zaizunean bueltan,  
konturatuko zara  
momentu horretan,  
soilik egon zarela  
iragarkietan.



**DOINUA:** Jardin bat zuretzat



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

# erdiko kaira

Markos Zapiain

## «Eztabaida ideologikoaren buruzagiak oso banpirikoak dira literaturarekin»

ETako kideek amets egiten dute nobeletan, baina Markos Zapiain horretara jarri den arte, inork ez dio erreparatu azken hamarkadetako narratiban egoskor, zerbait adierazi nahian bezala, behin eta berriz errepikatu den ezaugarri horri. *Etakideen ametsak* (Elkar) liburuan amets horien interpretazio zorrotz bezain freskoa egin du Bermeon laketutako irundarrak.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

Aukeratu duzun gaia ez da oso arrunta: ETako kideek hainbat euskal nobeletan izan dituzten ametsak. Zer ikusi zenuen amets horietan, narrazioen beste parteetan ikusi ez zenuena?

Hitzaldi bat eman behar nuen UEUk antolatutako “Euskal gatazka euskal literaturan” jardunaldietan eta hari moduan praktikoa iruditu zitzaidan. Ez naiz gai txapa ideologiko bat sartzeko. Gainera, ez dakit zeinek esan zuen, beharbada Kafkak, edo Sánchez Piñolek, ametsak ipuin perfektuak direla.

Badirudi nobela bakoitzaren sakoneko esanahia argitzeko baliagarriak direla ametsok. Funtzionatuko ote zuten eleberriek pasarte horiek gabe, zure ustez?

Auskalo. Honezkero ezin ditut irudikatu amets horiek gabe. Amets horietan narrazioa trinkotu egiten da, intentsuago bilakatu eta ametsaren ostean ezer ez da berdina. Lagungarri dira nobelaren sakoneko esanahia argitzeko orduan. Kontua da, ametsa behar bezala desbiribilkatzea. Leibnizek zioen edozer gauzakik unibertso osoa barnebiltzen eta adierazten duela. Hori bai, kiribildurik dago unibertsoa harri koxkor horretan. Lantegi ederra izan daiteke gauzek gordetzen dituzten altxori eta munduak behar bezala desbiribilkatzea, eta ametsekin berdintsu. Nobela osoa aurki dezakezu amets batean bildurik. Baina baita orrialde arrunt batean ere: Erich Auerbach-



“Honezkero ezin ditut aztertutako nobelak irudikatu amets horiek gabe”.

ek *Mimesis* liburuan erakutsi zuen. Judua zela uste dut, eta nazien garaian ez zeukan liburutegi bat kontsultarako, liburu solte batzuk bakarrik; eta orrialde arruntetatik abiatuta ateratu zuen nobelen funtsa.

Diozunez, Freuden definizioa baino (ametsa desiren betetzea da) hobe da etakideen ametsak ulertzeko Hillmanek proposatutako bidea. Gaiari modu klasikoan heltzea alboratu nahi izan duzu?

Ez naiz gai erantzuteko ametsak interpreta-  
tzeko orduan zer maiztasunez jartzen diren  
zalantzan *a priori* freudiarrak, ez dakit; gai-  
netik begiratuta, ematen du gaur egun Freu-  
dena dela ametsen zentzuari buruzko ikus-  
punturik zabaldiena. Baina ez nau bultzatu  
ildo nagusiaren aurka jotzeko asmo iraul-  
tzaile matxino batek. Ametsak  
aztertu ahala, konturatu nin-  
tzen soilik Arantxa Urretabiz-  
kaiaren *Koaderno gorriko* batek  
funtzionatzen zuela Freuden  
ikuspuntuen arabera. Gaine-  
rakoak askoz ere egokiago  
lotzen zitzaizkion Hillmanen  
ikuspuntuari: Jungen dizipulua  
da Hillman eta dio heriotzak bidaltzen diz-  
kigula ametsak. Gaston Bachelarden lan  
eskergea ere primeran etorri zait, *Airea eta*  
*ametsak*, *Ura eta ametsak*, *Lurra eta atsedenaren*  
*amesgintza*...

**Heriotza da etakide askoren ametsetan ager-  
tzen den gaia.**

Etakide askoren ametsetan ez, etakide guz-  
tien amets guztietan, batean izan ezik, Sarrio-  
nandiaren *Lagun izoztuako* bigarrena, hain  
zuzen etakidea den idazle bakarraren ametsa.

**Ondorioetan ez duzu gehiegi sakondu nahi izan  
horren zergatietan.**

Nahi bai, baina ezin. Ondorioetara iristerako,  
aski ahitua edukiko nuen kemena. Gordine-  
gia zait heriotza, beste askori bezalaxe, trista-  
tu, ergeldu eta mututu egiten nau.

**Uste al duzu aurrerantzean publikatuko diren  
euskal nobeletan joera hori aldatuko dela?**

Orain ez naiz sistematikoki jarraitzen ari.  
Koldo Izagirreren *Egarri egunak portualdean*  
ez dago ametsik, baina gauza inportanteak  
esaten dira, adibidez “dena galdetzeko dena  
amestu behar da”. Baina ametsik ez da ageri.  
Eta Harkaitz Canoren *Twisten* ere, nonahi  
ageri dira desagertzea eta mamua, baita herio-  
tza ere, amesgintzarako testuinguru egokia,  
baina ez dago ametsik. Nik uste dut literatoak  
kabroi hutsak direla eta probokatzeko egiten  
dutela [barre egin du].

**“Pentsa liteke ETaren ekarpenik handiena Eus-  
kal Herriari ETari buruzko euskal literatura izan  
dela”. Esaldia probokatzailerak da eta eragin du  
dagoeneko erreaktziorik, Laura Mintegirena  
kasu. Eztabaida ideologikoak estaltzen al du  
literatura?**

Bai, eta askotan eztabaida ideologikoaren  
buruzagiak oso banpirikoak dira literaturare-  
kin. Bakarrik interesatzen zaie beraien helbu-  
ru politikoetarako erabili dezaketen neurrian.  
Nik ez dakit zer den literatura, baina horrek  
literaturarekin zerikusi gutxi dauka. Dena  
den, eztabaida ideologikoak literaturari  
buruzkoa estaltzen duen bezala, zarata  
mediatikoak estaltzen du eztabaida ideologi-  
koa bera. Ez dago zereginik. Beraz, liburu  
honek ez du ia ezertarako balio.

...

Ez du balio putzutik irteteko,  
inork ez dio kasurik egingo.  
Igual ARGIAK edo...

**Zein da aztertutako ametsetatik  
arrasto sakonena utzi dizuna?**

Liburua argitaratu zenetik zen-  
bait hilabete igaro ondoren ere,  
egia esan, den-denak gogoratzen ditut bizi-  
bizi: *Hamaika pauson* amak Abaituari zerral-  
doan sartu eta hil dadila agintzen dionekoa;  
*Agirre zabarraren kartzelaldi berriakeko* psiko-  
pataren agerkundea Metxari; *Pasaia Blueseko*  
Martaren eta Patakiren txortaldia sukaldean;  
*Soinujolearen semeako* Trikuren eta Komaroven  
orbita Lurraren inguruan, harik eta oxigenoa  
ahitu eta amiltzen diren arte... Batzuetan  
idazleek ez dizute abisatzen ametsak direnik,  
Txillardegik eta Canok, adibidez. Izagirrek  
ere ez beti. Aldiz, *Zeru horieko*ak ez dira  
amets-ametsak, baizik eta borondateak gida-  
turiko jauziak iraganera edota etorkizunera.  
Ametsa hemendik edo handik gidatuko dute-  
la erabakitzen dute, txamanek bezala. Ez  
dakit hori nola interpretatu, hain zuzen per-  
sonaia femeninoak izatea hori egiten dute-  
nak, ez baita emakumeek idatzitako nobe-  
letan bakarrik gertatzen.

**Aurretik blogean publikatutako materialekin  
osatu dituzu zure azken bi liburuak, bai hau eta  
bai *Talatik tiroka*. Paperak zer eskaintzen die  
testu elektronikoa hauei?**

Bloga probak eta esperimenduak egiteko  
laborategi antzekoa da, baina gero, liburura  
heldu baino lehen, hamaika buelta ematen  
dizkiet blogeko burutazioei, eta zuzendu,  
berridatzi eta ostera ere zuzendu, liburua  
entregatzeko epea amaitu arte. Blogean ez  
dagoen testu ugari ageri da gero liburuan.  
Gainera, badira “oraindik” irakurleak, blogak



**“Hobeki pasatu dut *Etakideen ametsak* idazten tesiarekin baino. Eta ez dut ahazteko Joxe Azurmendiren aholkua: idatzi jendearentzat, edonorentzat, eta ez akademiako kolegentzat”.**

ez baina liburuak bai irakurtzen dituztenak. Eta saiozile handienetako zenbaitek liburuak egituratu zituzten blogetako idazkien bildumen antzera, hala nola Nietzschek: *Gizatiarra, gizatiarregia, Zientzia alaia, Ongia eta gaizkia haraindi, Moralaren genealogia*... Blogetik atera berriak dirudite. Agian belaunaldi kontua da, “tropelekoa” naizelako-edo, baina gure zera liburua da; beharbada aurreiritzi kutre bat da eta gaingidutako da...

**Liburuak badu literatur-analisi akademikoeek maiz faltan izaten duten freskotasuna...**

Bai, hobeki pasatu dut *Etakideen ametsak* idazten tesiarekin baino. Eta ez dut ahazteko Joxe Azurmendiren aholkua: idatzi jendearentzat, edonorentzat, eta ez akademiako kolegentzat. Interneti esker akademikoki zuzena denetik ateratzeko aukera berriak sortu dira, gehiago literaturan saiakeran baino.

**Euskal gatazkari buruz ikuspuntu asko oraindik idazteke daudela zenioen duela ez asko. Baina, posible al da euskal nobela batean torturatzailen zintzoa agertzea, adibidez?**

Zaila da, kontuan hartuta euskal idazle gehien jatorri soziologikoa zein den. Jendeak

hartuko luke Unai Iturriagari bertsotan “zu Borboiko Elena zara...” erako gai bat jartzen diotenean bezala. Bilatuegitzat eta estrabagantetzat joko luke ziur aski irakurleak, ariketa mentaltzat. Dena den *Twisteko* Pedro Vargas, Rodrigo Mesa eta Javier Fontecha bezalako pertsonaiak oso helduak eta sokinak iruditzen zaizkit eta Galindo, Dorado edo Julen Elgorriagaren ibilbideetatik edan duten pertsonaiak dira.

**Jarraitu al duzu bestelako gatazka armatuak dauden nazioetako literaturek nola landu duten gaia? Imitatzeko moduko eredurik?**

Gurean ez da jorratu IRARI lotuta Rusty Rodriguezek *Nightmare in Irelanden* ibilirikoa bidea: egundoko ezusteak kapitulu kapitulu, polizia detektibe titi-goxo bero tentagarria, finantzen globalizazioa baliatzen duen Interneteko guru iruzurtia, nazien sekretuen ezusteko desestaltzea, software delikatuak lapurtzen dabilen txinatar misterioak, Vatikanoa suntsitzeko IRAkoen isilpeko egitasmoa... Hori guztia eleberri bakar batean eta Irlandako gatazka armatuaren inguruan biraka. ■



## Kulturgintza

# Likiniano-Gatazka gunea itxita, herri kulturak galdu du

1992ko urrian sortu zen Iturribide kalean Felix Likiniano izeneko kultur elkarteak. Ez zen ohiko liburu, disko, aldizkari eta fanzine denda, 1980ko hamarkadatik gogor ari ziren gizarte mugimenduen elkargune eta hausnarketarako espazioa izan nahi zuen. Auzo elkartearen, intsumisioen, irrati librearen, mugimendu antiautoritario, ekologista, feminista edota autogestionatuen elkargune bilakatu nahi zuen. Urte askoan lan eskergaitza egin ondoren, ateak itxi zituen urtarrilean.

MYRIAM GARZIA

GAUZA ASKO ALDATU DIRA azken 20 urteotan, baina Juantxo Estebarezek, Felix Likiniano elkarteko sortzaileak, ondo gogoratzen ditu elkarteak sorreran izan zituen helburuak eta testuingurua. Bilboko gaztetxea zabalik zegoen oraindik 1992ko urrian; Felix Likiniano denda zabaldu eta handik hilabete eskasera itxi zuten Bilboko Zazpikaleetan egon den gaztetxerik handiena eta dinamikoenetako bat. 1980ko hamarkadako hainbat taldetan ibiliak ziren gunearen sortzaileak: intsumisioa eta mugimendu antiautoritarioak bere onenean, auzo eta herrietako irrati libreak, Itoizen aldeko borrokarekin eta laster etorriko zen AHTren kontrako mugimenduarekin aro berri bati ekiten ari zen ekologismoa... “Likiniano hausnarketa batek jaio zen”, dio Juantxo Estebarezek. “80ko hamarkadatik zetozen mugimenduak sakabanaturik zeuden, ideologikoki eta talde desberdinetan ari ginenon adinagatik izan ezik. Gazte mugimenduan ibiliak ginen, autogestioan, Bilboko gaztetxean adibidez”.

Mugimendu horiek eta aurretik egondakokak bilduko lituzkeen espazio amankomuna sortzea zuten helburu. Hiru espazio edota helburu biltzen zituen hasieran Iturribide kalean zabaldu zen dendak. “Lehenengoa denda gisa, espazio publiko bat sortzea. Ordura arte material ugari banatzen arituak ginen, adibidez, DDT banaketa alternatiboaren taldean, baina izaera propioa zuen, eta denda estetikoki ere publiko mota guztia errentzako irekia izatea nahi genuen. Bigarren helburua, mugimendu alternatibo eta asanblearioetan ari ziren pertsona eta taldeen topaleku izatea zen, eta espazio hau izatea euren jardueren,

ekimenen, erakusketen edota hitzaldien lekua. Hirugarren helburu bat zegoen, hau guztia kudeatuko lukeen espazioa”.

Felix Likiniano, 36ko Gerran borrokan aritutako anarkista eta abertzalearen izena jarri zioten kultur elkarte berriari. “Pertsona libertarioa zen eta abertzalea eta antinperialista ere bai. Sortzailea ere bazen, idatzi eta margotu egiten zuen. Guzti horrengatik, eta bere denboran aitzindari izateagatik, zituen asmo handiengatik, aukeratu genuen Felix Likiniano elkarteari izena emateko” azaldu du Estebarezek. Zenbait material etorri ziren irrati libreetatik, Kalaña irrati edota Bost Axola irrati adibidez; eta DDT Banaketak, Bilboko gaztetxean sortutako diskoetxe eta material alternatiboaren banaketa taldea, xurgatu zuen *Lik*. 1992tik 1995era Iturribide kalean egon zen, 1995eko abenduan Erronda kaleko denda zabaldu zuten arte.

2006an aldaketa etorri zen, elkarteak izenez eta izatez aldatu zen eta Gatazka guneari eta Martxoak 18 (Komunaren eguna) elkarteari lekukoa eman zion. Baina, denbora tarte horretan Likinianok, hainbat ekimen jarri zituen martxan: Infogune bat sortu zen, 1970eko hamarkadatik emandako borroken materiala biltzeko –jarduera antikapitalista, asanbleario eta alternatiboetan emandako borroken liburuak, bideoak, aldizkariak eta fanzineak, batez ere–. Bestetik, hainbat elkar-teren baliabide gune ere izan zen, fotokopiak egiteko zerbitzua eskaintzen baitzien. Azkenik, 2002an eta ezker abertzalearen legez kanporatzearekin bat, Likiniano erreprograma lanak egiten aritu zen mugimendu honen talde eta elkarteetarako, “arazo larriak zituz-

ten euren dokumentuak egiteko ez ezik, kartelak inprimatzeko ere”.

2006an eta Gatazka gunea sortu zenean, “liburu denda hain zen handia, gure esfortzu guztiak horretara zuzentzen zirela. Denda ez zen berez helburu nagusia nahiz eta ordurako, ospe eta izen handikoa izan, gutxienez Bizkaian” dio Estebaranzek. Aukera bi zeuden, elkartea desegitea ala proiektuari arnas berria ematea. Orduan, DDT Banaketaketik talde bat sortu zen, denda bere horretan martxan jarraitzeko ardura hartu zuen, talde politiko gisa ere aritzeko nahiaz, beti ere eremu antikapitalista zein libertarioan, “ez hainbeste ordura arte bezala talde desberdinen zubi gisa. Likinianoko akatsak ezagutzen zituzten, burokraziaren ondorioak, bitartekoek jaten dutela azken helburua. Nire ustez, berriro ere, makinaria horrek hondoratu du Gatazka, kultur kontsumo eredu berriek eragindako diru galeraz gain”.

### Kontrakultura, kaletik mundura

Garikoitz Zulueta Gatazka Guneko kidearen ustetan, hiru “kolapso” dira Gatazka Gunearen itxieraren arrazoia. “Lehenengoa, kolapso politikoa izan da, hausnarketa politikoa neutralizatuta zegoelako. Likinianoko garaian bezala, inertziak janda gintuen, liburu denda arrunta baitzen Gatazka. Kaleko presentziari heltzea ezinezkoa zitzaigun”. “Ekonomikoki, azken bi urteak latzak izan dira” jarraitu du. Likinianoko eta Gatazkako motorra, diru sarrera nagusia, diskoen salmentatik zetorren. “Musika industrian ematen ari den



INIGO AZKONA

**DDT banaketakeko Omar Lopez (ezkerrean) eta Gatazka Guneko Garikoitz Zulueta. Ibilbide emankorra izan duen guneak ateak itxi dituen arren, Bilbok halako espazioen premia duela uste dute.**

krisiak ez digu lagundu. Gainera, behera erabatekoa izan da. Liburuetan beste horrenbeste gertatu da, argitaletxeak krisi larria pairatzen ari dira eta aurreranzko ihesaldi horrek liburu luxuzko objektu bilakatu du. Hori da itxieraren arrazoi nagusietako bat, kolapso ekonomikoa”. Azken arrazoia, “giza taldearen kolapsoa izan da. Aurreko arrazoiek bultzatuta, bakoitzak bere bidea hartu du eta DDTk banaketan jarraitzeko asmoa badu ere, Gatazka proiektua handiegia da beraientzat” dio Zuluetak.

Likiniano-Gatazka desagertu da dagoeneko, baina “aro berri honi egokitzeko beharra dago. Gure eredu apur bat zaharkituta egon daiteke baina kalean badago nahi bat, badira horrelako proiektu baten beharra ikusten dutenak Bilbon eta inguruan.

Eredu berriztatzaile batekin antzeko zerbaiti ekiteko badago jendea prest. Eta entzun ditut zurrumurruak antzeko proiektu bat martxan jartzekoak direla, poztekoa da”.

Bilbok eta Bizkaiak merezi eta behar dute Likiniano-Gatazka bezalako espazio bat Juantxo Estebaranzen ustez ere. “Gatazkako krisia ezagutu zenean, hainbat pertsona eta talde hurbildu ziren, proiektuak aurrera egin zezan laguntzeko prest, espazio horren beharraz ohartuta. Ezin da Bilbo irudikatu horrelako espaziorik gabe, Likinianok eta Gatazkek lortu duten elkarteen sarea berpizteko eta mantentzeko jendea badago. Eta egun, 2012an, ez da orain dela 20 urte baino zailagoa”. ■



## Udaletako euskara-zerbitzuen IV. topaketak

2012ko martxoaren 22an eta 23an  
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

**Gaia:** “Nolakoa da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo”

matrikulazioak online martxoaren 16ra bitartean - **PLAZA MUGATUAK**  
**www.udaltop.com**

# Liburuak

KRITIKA

## Bele beltza moko beltzean bi gerezi gorriekin

Helduen literatura

Gema Lasarte

GAIZKA ZABARTEK Susarekin eman du argitara lehen idazlana: *Zaharrak ez zuen hil nahi*. Unai Iturriagaren azaleko marrazkia: hilerria, gurutzeak, bele beltz bat gerezi gorri bi mokotik zintzilik, ardo botila bat eta kaliza parean, eta harago, Sherlock Holmesen antzeko gizaseme bat zelatan. Gurutzerik handienaren itzalpean sudur handi txapeldun bat: Cosme Gezeta. Horratx, barruan irakurriko denaren sintesia edo analogia zuri-beltzean eta kolore gorri printza batez. Beltza gailentzen da, intriga, heriotza, identitateen faltsutzea eta aldaketa direlako eleberraren ardatzik nagusienak. Bi gerezi gorriek, ordea, heriotzatik harago dagoen semantikari maitasun kutsu bat ematen diote, artean, *Le Temp de cerises* ere existitzen delako.

Eta hori guztia dago liburuan hamazazpi kapitulu-tan kontatua. Ahots nagusia literatur pertsonaia protagonista dena da, Josu Gezeta. Ehorzleak hilerria ez bat eta ez bi joateko eskatzen dio ordu baten buruan. Han doakio, Josu ehorzleari, esku hutsik ezin joan eta ardo botila batekin.



*Zaharrak ez zuen hil nahi.*  
Gaizka Zabarte.  
Susa.  
160 orrialde.  
16,15 euro.

Hilerrian hasten da kontua, ehorzleak esaten dio Josuri bere aita ez dagoela hilkutxan, are gehiago, behin ere egon ez delakoan dagoela. Eta hori dena “bordeaux hau kaliza banatan dastatzea Landaluze jaunaren gainean, elkarrekin lehengoz hizketan dihardugun bitartean”.

Umore handiz hasten da kontakizuna, gerora intriga eta misterio bihurtuko dena, eta beste azpi istorio-etan sakabanatuko dena. Josuk ez zuen bere aita eza-gutu, berak ezagutza izan orduko banandu baitziren gurasoak eta gutxira aita ustez hil baitzitzaion. Josuk aita absentearen izatea aspaldi onartua eta itxita zeukan, ehorzlea desagertetaren kontuarekin etorri arte. Josuk orduan ekingo dio desagertzearen nondik norakoak bilatzeari, bere aitaren iraganari soa botatzeari, hitz batean, berarekin zer ikusia ez duten bigarren mailako literatur pertsonaiak ezagutzeari eta kontatzeari. Ibilera horretan, hainbat espazio eta pasadizo ikusmiran jarriko ditu narratzaileak. Batzuek irakurlea bera ere Zabarteren fikziora helduta aurkituko da, askatuz gero zerbait galduko duenaren beldurrez. Saltoka eta trumilka baitabil kronologia zehatzik gabe eta aitarekin zer gertatu zen jakin nahian.

Intriga, jokoa, bizitzaren joanaren absurdoa, maitasuna eta, batez ere, nortasun eta identitate bilaketaz eta desagertuaz mintzo zaigu Josu Gezeta. Eta irakurleak zintzo jarraitzen dio miaketa horretan bukarara arte, amaieran soluziorik ez dagoela jakin arte, hipotesiak areagotu egiten direla antze-man arte. Orduan, berriro ekiten dio irakurtzeari, zein sasitan galdu den jakiteko eta, bidenabar, bele beltzaren bi gerezi gorriak bistaratzeko.



[www.arabakotxapelketa.org](http://www.arabakotxapelketa.org)

Antolatzailea



Babesle Nagusiak



# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Sputnik 11.**  
Batzuen artean.  
Bonberenea ekintzak.  
Iraupena: 32'29".  
8 euro.

## Norberak suziriak botatzen ikastea

TOLOSAKO lau talde gazte hauek bina kanta grabatu, eta Izaskun auzoko eta Tolosako labela ezarri diote Bonberenearen laguntzarekin lan eskergaz egindako emaitzari. Lau taldeotan da Bonberenean lanean aritzen den norbait, baina musika estiloetan antzekotasun gutxi dute: Switch taldeak metala lantzen du, tarteka melodikoagoa, tarteka gordinagoa. Indekitzenek, berriz, intentsitatearekin jokatzeko du pop-rocka egiteko zein musika dantzagarria eta noisea

batzeko. Glaukoma Sound Systemek erakutsi du Euskal Herrian reggaeaz gain, raggamuffina ere egin daitekeela eta uste baina giro epelagoa dugula. Azkenik, Dolce Tanganak rocka eta ska uztartzeko gaitasuna erakusten du ia The Mighty Mighty Bosstonesen pare. Talde berriei lagundu eta beraiek ikasteko ekimen aproposa da Bonbereneak ahalbidetu duena.

[www.myspace.com/sputnik11musika](http://www.myspace.com/sputnik11musika)

### Juantxo Arakama - Glaukoma Sound System

## «Sputnik 11ren helburuetako bat diskoa egiten ikastea zen»

#### Nola sortu zen ideia?

Lau taldeetako kide asko gabiltza Bonberenearen orbitan ekintzak egiten eta aspalitik elkar ezagutzen dugu. 2010eko abenduan Indekitzek, Glaukoma eta Dolce Tanganak kontzertua eskaini genuen Bonberenean eta Switch taldekoak ere han ziren. Orduan elkarlanean zerbait egiteko gogoia piztu zitzaigun. Talde bakoitzak bere kontura ezingo zuen disko propioa egin, grabaketa kontuetan eta abar geneukan esperientzia eta baliabide faltatik. Hala, bilduma egitea erabaki eta Bonbereneako kideek berehala eman ziguten baiezkoa.

#### Zer baliabide eskaini dizkizue Bonbereneak?

Disko osoa Bonberenean garatu zen, zortzi abestiak han grabatu eta nahastu baitziren. Imanol Urizar eta Mikel Zelaia, Bonbereneako kideak biak, izan dira grabaketaz eta nahas-



Glaukoma Sound System taldeko kideak argazkian. Switch, Indekitzek eta Dolce Tanganarekin batera atera dute Sputnik 11 bilduma.

ketaz arduratu diren gazteak. Bonberenearen laguntzarik gabe pentsaezina da guretzat horrelako ekimen bat burutu ahal izatea, beharrezkoak diren eragileak baliabideak bertan aurkitu ditugulako. Ulertezina da Sputnik 11 Bonberenea gabe.

#### Nolako esperientzia izan da?

Sputnik 11ren helburuetako bat

disko bat egiten ikastea zen, grabaketatik hasi, promoziotik pasa eta aurkezteko behar diren kontzertuak antolatzen amaituz. Horretarako oso baliagarri izan zaigu lau taldeoi, etorkizunean izan ditza-kegun erronka edo proiektuei aurre egiteko.

#### Zergatik Sputnik 11?

Sputnik historian jaurti zen aurreneko satelitearen izena da, baita diskoaren azaleko Tolosako dorreei ematen zaien izena ere –duten “kohete” itxuragatik–. Guretzat ere aurreneko jaurtiketa izan da disko hau, lau taldeen aurreneko satelitea musika munduaren espaziora. Eta aurkezpen kontzertua Sputnik dorreen plazan, Otsabi Auzo Elkartek antolatzen dituen Izaskun Auzoko Festetan egin genuen. Dorre horiekin Tolosako taldeak garela irudikatu nahi izan dugu. ■



# Ezpalak

JON TORNER

## Abian da Nafarroako ikastolen aldeko 'Artea oinez' erakusketa

NAFARROA OINEZ festaren antolatzaile Zizur Txikiko San Fermin ikastolak antolatu du 2012ko *Artea Oinez* erakusketa ibiltaria. Martxoaren 19ra arte Iruñeko Gotorlekuko Armen aretoan izango da ikusgai, eta ondoren, ekainaren 7tik uztailaren 8ra bitartean, Donostiako Kutxa-Boulevard aretoan. Orotara 60 artista ingururen eskultura, margolan eta argazkiak jaso dituzte erakusketan. Tartean dira, adibidez, Jose Luis Zumeta, Nestor Basterretxea, Dora Salazar eta Jose Ramon Anda. Obra guztiak salgai daude, eta jasotako dirua San Fermin ikastolarentzat izango da. *Artea Oinez* erakusketak Julio Martin-Caro artista (Iruñea, 1933-Madril, 1968) omenduko du aurten. Hala, Jorge Oteiza, Xabier Morras, Juan Gorriti, Gentz del Valle eta Julio Martin-Caro artisten lanekin ehuna grabatu egin dituzte antolatzaileek.

● Enrique Urbizu zinema zuzendariaren hitzak jaso zituen *El Correo*k, **No habrá paz para los malvados** filmagatik zuzendari onenaren Goya saria jaso ostean. Besteren artean, pirateriaz eta Interneteko deskargaz aritu zen:



«Nahikoa da kulturarako sarrera askearen eztabaida teorikoez. Hemen lurpeko ekonomia asko dago, sortzen dituen industriari etekinik ematen ez dioten ekin-tzak, Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez dutenak, BEZa ordaintzen ez dutenak eta kontabilitaterik gabeak. Gizarte ehuna suntsitzen dute, ez bakarrik ikus-entzunezkoaren industria (...) Megaupload-eko lodikote horren etxea irudi esanguratsuena da. Kultura askearen kontuarekin datozkidanean esaten diet: Honi etxea ordaintzeko?».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

**EGIZU HARPIDETZA**  
**EGIOZU HARPIDETZA**

Hego Euskal Herrian 138 € / Iparraldeko Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo  
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · [harpidetza@argia.com](mailto:harpidetza@argia.com)

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**  
1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Báilmen zkia. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELOPARRA  
HERNAN VINA

# Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

## Bizi puta hau

*Things that grandchildren should know.* Mark Oliver Everett.  
Little, Brown and Company, 2008.

AUTOBIOGRAFIKOAK EZ BALIRA, liburu honetan kontatzen diren gauza asko ez nituen sinetsiko. Egiantzekotasuna eta errealitatea bi kontzeptu desberdin dira eta batzuetan harremana duten arren, ez daude ezkondu. Aurrenekoa oso inportantea da fikzioan eta Mark Oliver Everetten bizitzak ez zuen galbahea pasako. Gauza gehiegi. Gauza txar gehiegi. Aitarekin –Hugh Everett III, fisikaria– ia harremanik ez zeukala kontatzen du. 51 urterekin ohean hilda aurkitu zuenean eta suspertzen saiatu zenean, gizon hura ukitzea arraroa egin omen zitzaion. Drogek eta problema psikologikoez arrebare buruaz beste egiten saiatzera eramane zuten. Eta azkenean, saiatzearen saiatzez, lortu ere egin zuen. Ama geroago ikusi zuen desagertzen, biriketako minbiziak astiro murtzikatuta. Neskekin gorabeherak nerabezarora iritsi aurretik. Eta gero, zer esanik ez. Drogak, delinkuentzia, gehiegikeria. Eta musika, bizitzaren zauriak kauterizatzeko.

Zeren, orain arte esan ez dugun arren, Mark Oliver Everett musikaria da, Eels taldeko burua. Eta talde horren musika oso konbentzionala ez den gisa berean, liburu hau ere ez da musikari baten autobiografia konbentzionala. Ez dago norberaren ibilbideko beltzak zuritzeko asmorik; ez du ezer ezkututzen –neskaren baten izena salbu, eta betiere inor estualdiren batean ez sartzeko asmoz–. Everettek historia bat zeukan kontatzeko eta ahalik eta modu zintzoenean egin zuen, girlandarik gabeko estiloa erabiliz.

Liburuaren lehen partea abentura-nobela gisa sailka liteke; edo biziraupen-gida bezala. Zergatik ez, inori laguntzeko asmorik gabe idatzitako auto-laguntza liburu duzu hau. Egia da bukaerako kapituluak ez direla hain “entretengarriak”. Drama familiarra amaitzen doan neurrian –kide gehiago ezin ziren hil, izan ere–, musikari batek disko-industriarekin dauzkan gorabeherak hartzen dute protagonismoa. Irakurri bat merezi duen lana, dena den. Honen ostean burua galarazten dizuten problema horiek ez zaizkizu hainbesterako irudituko. Eta hala ez bada, behintzat Eelsen kantak hobeto ulertzeko baliagarria izango zaizu.



*Things that grandchildren should know* liburuaren gaztelaniazko edizioaren azala.



**VITORIA GASTEIZ**  
EUROPEAN  
CITY CAPITAL

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

**Gozatu euskaraz liburutegietan!**

Gonbit-txartelak astebete lehenago

### ALDABE

> Otsoz otso

Ipuin kontalaria: Lur Korta  
Martxoak 15, 18:00 (2-4 urte)

> Foto-komik

Lantegia  
Martxoak 17, 09:30 -13:30 (6-10 urte)

### ARIZNABARRA

> Andineando

Bidaia-hitzaldia  
Martxoak 16, 19:00 (gazte-helduentzat)

> Hala bazan ala ez bazan

Zurrunka teatro  
Martxoak 29, 17:30 (+4 urte)

### IBAIONDO

> Liburuak gure lagunak

Ipuin kontalaria  
Martxoak 16, 18:00 (2-3 urte)

### LAKUA

> Munduan zehar... entzun nuen

Ipuin kontalaria: Jakin kontalaria  
Martxoak 16, 18:00 (+3 urte)

### PILAR

> Birziklatzea dibertigarria da

Lantegia  
Martxoak 10, 11:00 (5-6 urte) eta 12:00 (7-9 urte)

## KONTZERTUA

>> XABIER MONTOIA

"Montoiaren Mundu Miresgarria"

Martxoak 4, 21:00

IBU HOTS

## PRINCIPAL ANTZOKIA

>> OUT-IN

Kukai Dantza

Martxoak 8, 20:30

>> IPAR HAIZEAREN KONTRA

Tanttaka

Martxoak 14, 20:30

>> KlasikaT

Kepa Junkera. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Martxoak 18, 20:00

>> KAFKA ETA PANPINA BIDAIA

Tanttaka

Apirilak 1, 18:00 (+6 urte)

*Maite dugun hura, euskaraz!*




Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO


## Hitz gezidunak



# EUSKAL OROIGARRIA

# MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

**Eskaerak:**

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15  
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
© 943 371 545 - [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)

[www.argia.com/denda/makilak](http://www.argia.com/denda/makilak)



# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Errepideetako izotzaren aurka gatz erabiltzea kaltegarria izan daiteke?

OTSAILEKO LEHEN HAMABOSTALDIAN Europa osoa izotzaren pean bizi izan da. Estatu gehienetako albistegietan gatz biltegiak erakutsi dituzte; bertako gatz erabili izan da izotzaren aurkako borrokan. Eta batek baino gehiagok galde egin dit: “Aizu, hainbeste gatz erabiltzeak ez al du eragin kaltegarriak izango?”.

Itsasertzean bizi garenok jakin badakigu etxeetako leihoak eta hormak nola jaten dituen itsasoko kresalak. Gatz asko duten lurak oso idorrek izaten dira eta landare-espezie batzuk baino ez dute bizitzetik horietan. Hori esanda, garbi dago gatzak eragina baduela eta beraz, errepideetan botatakoak errepide-inguruko lurretan, zubietako zutabeetan edota gure ibilgai-luetan eragina, handia edo txikia, izan dezakeela.



Baina berdina da egoera Kanadan eta Euskal Herrian, esaterako? Berdina da euskal Pirinioen lurretan eta euskal itsasertzeko hiri eta herrietan? Kanadan bospasei hilabete izozpean igarotzen dituzte; euskal itsasertzean zaila izango da aste pare bat baino gehiago igarotzea. Horrek berebiziko garrantzia du gatzaren eragina neurtzeko, aste pare batean botatzen den gatzaren eragina ezin baita alderatu sei hilabetetan botatzen denarekin.

Beraz, artikuluko izenburuko galderaren erantzuna ez da ez “bai”, ezta “ez” ere. Erantzuna, leku bakoitzaren egoeraren arabera da. Euskal Herriari dagokionez, populazio gehiena biltzen den lekuetan gatzaren eragina nabarierazina izango dela esatea zilegi iruditzen zait, eta aldiz, mendikate inguruetan bizi direnek pixka bat igarri ditzaketela ondorioak, baina ez askorik ere.



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

## ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



**iametza**  
interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16

## Nano-belarria mikrobioak entzuteko

Ikerlari aleman batzuek eraiki duten gailuaren bidez zelula barruko soinuak entzun daitezke. Giza belarria baino milioi bat aldiz sentikorragoa da tresna, eta ADNaren errepikapenak eta zatiketa zelularrak entzun eta ezagutzeko aukera eskainiko du.

<http://ttiki.com/35175> (Frantsesez)

## Gruyère gatzaren egitura kopiatzan

Espainiako CSIC erakundeak temperatura altuko supereroaleak diseinatu ditu gruyère gatzaren egitura kopiatzuz, hau da, materialaren azalean zulotxoak eginez. Era horretara kobreak bidez garraiatzen dena baino 100 aldiz handiagoak diren korrante elektrikoak garraia daitezke.

<http://ttiki.com/35176> (Gaztelaniaz)

## Artozko krispetak, antzinako jakia

Artoaren laborantza orain 9.000 urte Mexikon hasi zela uste da; handik, pixkanaka, mundu osora zabaltzen omen zen. Peruko iparraldeko itsasertzean berriki egindako arkeologi hondeaketetan, orain dela milaka urte artoz egindako hainbat jakiren aztarnak aurkitu dituzte, tartean krispetak.

<http://ttiki.com/35177> (Gaztelaniaz)

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Gogora ekarri, gogoan hartu

EGIA DA! Simaurra egiteko makinak besterik ez garelako iruditzen zait maiz. Gure etorkizunerako garrantzitsua gure auzokoak ondo bizitzea dela zenbat aldiz gogoratzen dugu? Gure auzoko landareak, animaliak, ekosistema, paisaia... Gogoratu eta gogora ekarri, egunero, bizitzako eginahal guztiei ekiteko gogora ekarri. Ekarki eta txertatu.

Ahantzuraren garaia bizi omen ditugu. Bakoitzak berea eta kitto. Gerratearen memoria, jendartearen kultura, dena ahaztu... Antola hor! Gogora ekarri ezin bizi dugun ingurumen horretan bertan eskura ditugu ahantzuraren gaitz horri gogor egiteko sendagaiak. Sendagaiak ahaztea da ahantzuraren gaitza.

Gaur irakurri dut Alzheimer eta zahartzeari lotutako antzeko zoramen eta gaitzei aurre egiteko zergetareko hiru aukera eraginkorren berri. Bat, jende arteko solasaldiak, berbetak eta eztabaidak. Bestea sukaldian janariak prestatzea. Eta hirugarrena landa-

rezaintzara ematea. Atso eta agure helduak lauzpabosnakako taldeetan jarri dituzte. Inondik ere, bakar antzera etxean dauden aldean memoria test hobeak osatu dituzte. Hiru lan horiek bakardadea uxatzen dute eta kakoa hor egon omen daiteke. Lehen bietan jendartearen sustatzen da. Eta hirugarrenean? Horretan jendea bezain garrantzitsua izan daitekeen gure ingurumena, gure paisaia, paisaia kulturala, kultura! Landareek mesede egiten digute. Sendagai.

Landare artean dabilen gutxi asko erromeroaren berri izango du, *Rosmarinus officinalis*. Usain handiko landarea da, kolonizatu gintuen Mediterraneo itsasotik ekarria. Etxe-kontra eta baratze-bazterretan ezaguna, lorategi hiritarretan gero eta ugariagoa. Bada bere ura, erromero-ura hartzea oso ona omen da memoria gaitasunari eutsi eta hobetzeko. Hori ere irakurri berria dut eta, gogoratzen banaiz, hartuko dut.



## Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zure artikuluko bateko fotoa ikusita, behin, Dublinetik pasieran nembilela, egin nuen beste batez oroitu nintzen, eta horra fotoa! Badut gainera galdera bat: etxeko balkoian *cissus* bat jarri nuen horman gora ondo igotzeko moduan. Geroago loreontzi berean jazmina jarri nuen txirikordaturik, bestearekin batera gora joan zedin; eta ondo hazi ziren, baina jazmina ximeltzen eta igartzen hasi zitzaidan eta orain *cissus* bera ere bai. Zer izan liteke, kokoren bat, orientazio txarra?

Jon Ezkurra (Algorta).

Kaixo Jon, eta eskerrik asko argazkiko asmo dotorea gureganatzeagatik. Zure balkoikoari buruz, orientazioa kaxkarra balitz hasiera

beretik azalduko litzateke arazoa. Kokoren bat izanez gero beste sintomaren bat ere bai agertuko: lizun, arrautza, har, beldar... Bi landare igokari horien gaitza loreontzia bera izan daitekeela iruditzen zait. *Cissus* bezala jazmina, biak asezinak dira. Etengabe puja berriak luzatu eta hazi egin behar dira, bestela akabo. Eta loreontzia muga da, elikagai mugatuak ditu. Bi landare elkarren ondoan egoteak egoera txartu besterik ez du egiten. Elkar akabatu arteko onik ez dute izango. Ahal izanez gero bakoitza loreontzi banatan jarri. Eta elikadura zaindu: urtero ahal den neurrian luberria eman, axalekoa behinik berri eta simaurrez ongarritu. Era berean, neguan ez beste, ureztatzen



JON EZKURRA

duzun urari ongari kimiko dosi txiki bat gehitu, berdetarakoa, hostajea indartzeko likidoa, onena. Hori egiten baduzu ondo ezkonduko direla iruditzen zait. Noiznahi gose puntua pizten zaizunean, loreontziko bikotearekin gogoratu... Eta jaten eman. ■



Babeslea: Alkartasuna Kooperatiba elkarte



EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

**KOKAPEN BERRIA USURBILEN**

Atallu Industrialdea, 26

T 943 361 114 / [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) <http://www.alkartasunausurbil.com/>




# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Pioneer 10: 40 urte espazioan lagun bila

NASA-ARC



Ezkerretik eskuinera: Pioneer 10 zunda espaziora jaurti zuten unea, 1972ko martxoaren 2an; zundak barruan daraman xaflaren irudia; eta zundaren marrazkia.

CAÑAVERAL LURMUTURRA (AEB), 1972KO MARTXOAREN 2A. Pioneer 10 zunda jaurti zuten espaziora. Asteroide gerrikoa zeharkatu zuen eta Jupiterre iritsi zen lehen zunda izan zen; halaxe, misioaren helburu nagusia bete zuen. Baina espazio zundak bere bidea jarraitu eta 1983an Neptunoren orbita zeharkatu zuen. Horrenbestez, gizakiak fabrikatutako lehen objektua izan zen Eguzki Sistematik irteten.

Zundak 258 kilogramo pisatzen du eta ez da hiru metroko luzerara iristen. Meteorito detektagailuak, kamera, erradiometroa, magnetometroa, izpi kosmikoen detektagailua eta plasma sentsoarea ipini zizkieten zundari, baita urrezko xafla berezi bat ere: Pioneer Xafla esaten diote, eta balizko estralurtar adimendunentzat mezu sinbolikoa dauka idatzita. Eskuinean, gizon eta emakume bana daude marraztuta. Ezkerrean, erdiko puntuan batzen diren marraz osatutako izar modukoa; gugandik gertu dauden pulsar nabarmenenak adierazten ditu marrazkiak, hau da, gure “helbidea” markatzen du unibertsoan. Azpian, Eguzki Sistemaren eskeima bat ageri da, eta bertan, zundaren bidea dago marraztuta. Goian, azkenik, hidrogeno molekula baten spin-a dago, sistema binarioaren bidez adie-

razia. Xafla Carl Sagan eta Frank Drake astronomoek diseinatu zuen.

Urtebete geroago, Pioneer 11 zundaren bidez, mezu bera bidali zuten kanpo-espaziora. Baina 1977an, Voyager 1 eta Voyager 2 zundekin batera askoz mezu konplexuagoa bidali zitzaizkien espazioko balizko hartzaileei: urrezko disko batean, musika, agurrak 55 hizkuntzetan, Lurreko beste hainbat soinu adierazgarri eta 115 irudi jaso zituzten, gure zibilizazioaren oinarriak laburbilduta.

2003ko urtarrilaren 23an, Pioneer 10 zundaren azken seinale ahula iritsi zen Lurrera. Distantzia zenbat eta handiagoa, orduan eta seinale ahulagoa, eta Pioneer 10 Lurretik 12.000 milioi kilometrorra zegoen orduan. 2006ko martxoaren 4an zundaren arrastoren bat jasotzeko azken saioa egin zuten NASAkoek, baina ez zuten erantzunik jaso. Proiektua bertan behera utzi zuten.

Ezbeharrik ezean, Pioneer 10 gugandik 16.000 milioi kilometro ingurura egongo da orain, Tauro konstelazioko Aldebaran izarra helburu. Baina beste 1.690.000 urte beharko ditu hara iristeko, bidean inorekin topo egiten ez badu, behintzat. ■




## Arrastoak

### Paleolitoari buruzko nazioarteko biltzarra

“GIZA ARRASTOA Europako ertz atlantikoan” izenburupean, Paleolito garaia hizpide izango duen Atlantiar nazioarteko biltzarra egingo da Irungo Ficoban maiatzaren 18an, Jauzarreak (euskal kulturaren azterketarako eta zabalkunde-rako funtsa) antolatuta.

Duela 45.000 urte inguru Europa atlantikoan kokatutako *Homo sapiens* taldeek atzera egin behar izan zuten azken glaziazioan (duela 20.000 urte), hotzetik ihesi, eta Bizkaiko Golkoko kostaldean bildu eta babestu ziren. Goi Paleolitoko Babeslekua esaten diote adituek eremu horri. Hantxe kokatuta, gizakiek bizirauteko abenturarekin jarraitu zuten. Nazioarteko biltzarraren xedea abentura horren hainbat alderdi jorratzea da: antolamendu soziala, materialak, mugikortasuna, egoera klimatikoa eta abar.



JAUZARREA

Nazioarteko biltzarraren afixa.

Mikel Arana

# «Lau koloreko Euskadi politikoa ez da erreala»

Ordizia, 1973. Ezker Anitza-IUko koordinatzailea da. Legebiltzarkidea Gasteizen. Ezker Anitza Espainiako Estatuko Izquierda Unidarekin (IU) konfederatuta dago. Ezker Batua eta Ezker Anitza bi aukera dira honezkero. Ezkerra, anitza ez ezik, zatituta dagoenaren erakusgarri.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

ESTATUKO IZQUIERDA UNIDA, Ezker Anitza-IU da Euskal Autonomia Erkidegoan. EA-IUko koordinatzaile Mikel Aranarekin luze hitz egin dugu espazio politiko honen iragana: Jaurilaritzan osatu zuten Hirukoa, Ibarretxe Planaz, ezkeraren krisiaz... Besteak beste, hauxe ikasi du: “Ezin zaitezke politikan modu zintzoan aritu, baldin eta ez baduzu politika ulertzen gizartea aldatzeko baliabide bezala”. Ondorioz hauxe ere esan digu: “Politika sinesgarria egiteko, alderdiek dioguna betetzen hasi behar dugu, demokrazia irekia eta parte-hartzailea bultzatuz eta gardentasunez jokatzuz”.

Ezker Anitzak EAEn “bosgarren espazioa” bete nahi du, EAJ, Bildu-Amaiur, PSE eta PPren ondoren. Azaldu ieza-guzu zuen asmoen nondik norakoa.

Guk bosgarren espazio politikoaz hitz egitean, ikuspuntu elektoral batetik ari gara, funtsean alderdi nagusi horiek bezala. Beraiek Euskadi lau koloretan agertzeko berebiziko interesa daukate, soilik lau koloretan. Guk, jakina, lau horietaz beste, gutxienez beste espazio politiko bat dagoela diogu. Lau esparru horietan beren burua eroso kokatzen ez dutenena. Izan ere, esparru horietan izateko independentista edo konstituzionalista izan behar duzu. Ezker Aintzak independentistak eta konstituzionalistak izan gabe, bestelako esparru politiko bat



aldarrikatzen du, guk eraiki nahi dugun esparrua.

**“Burua eroso kokatzen ez duena” ez da Ezker Anitza soilik beraz.**

Inkestek diotenez, alderdi sozialista baino ezker alderago eta ezkerreko

nazionalisten erdibidean badago espazio bat. Ezker Anitza hor dago, baita ezkerreko beste alderdi txikiak ere: Gorripidea, Antikapitalistak, Equo bera... Horiekin batera espazio hori landu eta zabaldu dezakegu. Herri honetako %30k baino gehia-



**“Bilduk Kutxabank osatu den bezala onartzea guretzat onartezina da”.**

gok ez du bozkatzeko eta herritar horietako askok ezkerreko esparruan kokatzen du bere burua. Lau koloreko Euskadi politikoa ez da erreala.

**Ezkerreko boto horiek hauteskundee-tan lehiatzeko, edota bestelako asmoz ere bildu nahi dituzue ezkertiarak?**

Noski. Izan ere, guk akats nabarmena egin dugu gure lan politiko guztia hauteskundeei begira landuz. Hauteskunde-zerrendak osatzeak berak politika zailtzen du. Horrek alderdien arteko elkarlanaren aukerak zapuzten ditu, baita susmo txar interesatuak zabaldu ere. Uneon, Ezker Anitza bezala ikusten dugu gure burua hauteskundeei begira, halere, egoera ekonomikoak are gehiago behartzen gaitu ezker alternatiboa eta erradikala osatzera. Alderdi horiekin bilerak izan ditugu elkarlana sustatzeko. Konfiantza sendotu, sakondu eta elkarlanaren emaitzak aurkeztu nahi ditugu datozen hilabeteetan, betiere, hauteskundeetako dinamika harago joateko, jakina.

**Aralar eta EArekin ari zara Legebiltzarrean. Zer moduz ezker ikuspuntutik?**

Legebiltzarreko gure elkarlana erraza da. Egitasmoen ehuneko 75ean ados gaude. Aralarrekin errazagoa da ezkerreko alternatibaren asmo sakona duelako. Etor-kizuneko Euskal Herriak zer izan beharko lukeen adierazterakoan desberdintasunak ditugu, ezker ikuspuntutik aritzeko bat ere ez. EArekin, aldiz, adostasuna bestelakoa da sozial-demokraziatik datorrelako. Adibidez, Bilduk Kutxabank osatu den bezala onartzea guretzat onartezina da, Aralarrek ere ez du bat egin, EAK bai.

**Zein izan da Ezker Anitzaren lanaren ardatza Legebiltzarrean.**

Hasieratik, Ezker Batua lehen eta Ezker Anitza orain, saiatu gara dagokigun esparru politikoan kokatzen. Hiruko gobernutik gertotzen, deskokatuak geratu ginen. Legebiltzarrean

lehendakaria hautatu zenean funtsezko erabakia hartu genuen. PPK eta PSEk bat egin zuten batetik, eta EAJk, EAK eta Aralarrek bestetik. Gu ez ginen ez alde batean ez bestean kokatu, birkokatu ginen. Hor-tik aurrera, ezkerrek, niretzat ezker-ra denak, gehienez bost boto batzen ditu, gurea eta Aralarreko lauena. Gure helburua, benetako ezkerrek gizarteari eskaini nahi dion politikaren ardatza agertzea da. Zaila da, baina saiatzen gara ezkerren politika-marka uzten.

**EAJ (Iñigo Urkullu buru) eta Jaurlaritzaren arteko tirabira izan da Jaurlaritzako diru kontuak direla-eta. Altxortegian dirurik ez dela dio EAJk. Zer irakurketa egin duzu zuk?**

Aspaldiko *Los Roper* telesailako eszenak gogoratu dizkirate. Bikote hori beti haserre zegoen etxean, baina azkenik, hala edo nola moldatzen ziren. Hau ere antzekoa izan da: antzezlanak. Urkulluk —ez dakit bere burua lehendakari ikusten duen edo, EAJk jakingo du hori— Lopez lehen-

dakariari oposizio lana egin dio zuzenean eta lehendakariak ere ikusi du tirabira horretatik etekina atera zezakeela nonbait. Bi kontu esanguratsu daude: EAJ Jaurlaritzaren aurrekontuetan abstenitu zen, ez zuen kontrako botorik eman. EAJk ahalmena badauka Jaurlaritza zein egoera ekonomikoan dagoen jakiteko, halere, ez zitzaion egoera hain larria iruditzen nonbait. Bestetik, Lopez Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka ari da zergak direla, ez direla, baina alderdi sozialistak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuaren aldeko botoa eman zuela esan behar da. Hau da, aurrekontu horiek ontzat emateaz gain diru sarrerak onartzen ditu. Beraz, diskurtsoa erabat erortzen da. Halaber, Lopezek politika orekatu behar dela dio, eta Gipuzkoan Bildurekin ere zergen inguruko adostasuna lortu du. Neurriak ez dira aski, baina bozkatzeko garaian EAJk nahiz PSEk *status quo*-ri eutsi nahi diotela agerikoa da: zergen inguruan, diru sarreraren inguruan, zorpetzearen inguruan... Alegia, den-denak, Bildu barne, haien desberdintasunak eszenifikatu dituzte hauteskundeei begira.

**Gobernu honek iraun al dezake? Iraun behar al du?**

Iraungo du. Irautea PPren esku dago. Batzuei [EAJri] gustatuko litzaiekeena baino gehiago iraungo du, legealdia agortzeraino, edo gutxienez udazkenara arte. Gure ikuspuntutik hori ez da txarra, normaltasunaren seinale delako. Sortu alderdiaren legalizazioaren zain gaude, eta datozen hauteskundee-tan aukera politiko guztiak presente egotea ezinbestekoa da. Sortu hauteskunde garaian legalizatua egotea beharrezkoa da normalizazio bidean. Koalizioan joango den edo ez beren erabakia da. Funtsezkoa da ez eztabaidatzea hurrengo legealdian, Legebiltzarra zilegia izango den edo ez.

**PPko Fernandez Diez Barne ministroak gatazka politikoaren izaera onartu duela zabaldu da. Bai ote?**

PPk ezker abertzalearen proiektu politikoari ezetz esateko indarkeria-aren aitzakia erabili izan du orain arte, orain berriz, aitzakia hori

bukatuta, Fernandez Diezek “ikus-puntu politiko batetik proiektu horri ezetz esan behar diotela” esan nahi zuen, nik uste. Ministro honek ez du behar den eskarmentua ordea. Alderdi gehienak egiten ari direnaren kontrako norabidean agertu da. Alderdi gehienek ere ezker abertzalearen proiektu politikoa ezeztatu genuen ETArekin indarkeria zegoelako. ETak indarkeria uztea erabaki duenean, PPK proiektu politiko hori onartu eta bideratzeko arazoak dauzka. PP ez dago prest proiektu politiko horrek eskatzen duen autodeterminazioa onartzeko, baina ETArekin aitzakia bukatu zaio. Espainiako Gobernuaren nahia orain ETA eta autodeterminazio eskubidea lotzea da. PPrekin kezka ETak ez hiltzea erabakitzea izan da. PP ez dago ohitua egoera berrian politika egiten. Beraz, “autodeterminazioaren aitortpenak ETari mesede egiten dio” leloa errepikatzen du.

#### **Ezker abertzaleak une batean, aurre- rapausotzat jo ditu adierazpenak.**

Nik ez ditut horrela jo. Hasteko, Fernandez Diezek gauzak ez ditue-lako garbi esaten. Eta hori ez da poztekoa, are gutxiago autodeterminazio eskubidea defendatzen dugunontzat.

#### **EPPK-k eman dituen urratsez eta euren jarreraz zer diozu?**

Euskal presoekin kolektiboa ETA da. Ez dut nik esaten, ezker abertzaleak ere badio hori. Kolektiboak bere burua horrela jotzen baitu, ETak bizien daukan kolektiboa da. Berez ez da gaizki horrela izatea, horrek bidea errazten du. Gobernuak hor

ditu mintzakideak neurri batean, ETako presoak ETA baitira. Noski, Gobernuak eta ETak nahi dutenaren artean aldea dago. Preso horiek legeak ematen dituen onurak modu kolektiboan garatzea nahi dute, eta horrek irtenbidea zailtzen du. Nancloresko presoekin bidea ere hor dago. Nik irtenbidea batzuen eta besteen jarreraren erdibidean ikusten dut. Hau da, presoekin eskubideekin egungo legediarekin zerikusia daukate, beraz aurki dezagun erdibidea. Nancloresko presoekin bidea egin gabe, onurak aplikatu ahal izateko moduak bilatu behar ditugu.

#### **“Egoera ekonomikoak are gehiago behartzen gaitu ezker alternatiboa eta erradikala osatzera”**

Adibidez, damua eta barkamena terminoak, biak gure tradizio katolikoaren eraginez erabiltzen ditugu. Gu laikoak bagara, etakideei egindako minaren errekonozimendua eskatu behar zaie. Damua eta barkamena norbanakoaren esparruan geratu behar dira. Egindako minaren errekonozimendua onartuta erdibidera iritsi daiteke. Zentzu horretan, biktimei begira, preso bat bere herrira bueltatzen denean heroi bat bezala hartzea saihestu behar da, horrek min izugarria egiten baitie biktimen senitartekoei.

#### **Lokarrik eta ezker abertzaleak bake prozesua kolokan ikusten dute.**

Izan ere, ezker abertzaleak eta orobat ETak denboraren perspektiba

galdu dute neurri batean. ETak demokrazia garaian ehunka hildako egin ditu. Orain, 30 urte eta gero, gizarteak gelditzeko behin eta berriz adierazi ondoren, ETak uste du indarkeria uztea erabaki duelako gizarteak hasi behar duela berek nahi duten erritmoan mugitzen. Gizarteak bere erritmoak ditu. Gobernua hiru hilabetetan ez delako mugitu, ezin duzu esan bake prozesua kolokan dagoela.

#### **Lopez lehendakariak hau esan du: “Itun politiko berriaz hitz egingo da hurrengo legealdian”.**

Noski. PSE konturatu da euskal gizartearen gehiengoak onartzen duela –indarkeria desagertu ondoren– gatazka politikoari buruz hitz egin behar dela. Alderdi sozialistak ezin du diskurtso originalik egin, eta datozen hauteskundeetan ezin daiteke aurkeztu Konstituzioaz hitz egiten, aurrekoetan egin zuen bezala. Zerbait ezberdina eskaini behar dio euskal gizarteari. Lehendakariak baina, modu orokorrean hitz egiten du. Zer da itun politiko berria? Auskalo! EAJ ere orokorrean ari da. Zerbait berria behar da, noski. Baina ez bata ez besteak ez du argitzen zer den itun berria delakoa.

#### **Ezker Anitzak berriz, zer proposatzen du?**

Guk federalismoari eusten diogu. Atxikimendu libreko federalismoa proposatzen dugu. Autodeterminazio eskubidea egikaritzea da gure xedea, nazio eta kultura anitzek osatutako Estatua, ongizatearen Estatua bermatzeko asmoz betiere. Ezker abertzaleak independentzia proposatzen du. Zilegia da. PSOEek eta EAJk, aldiz, hauteskuntetik hauteskundera nahasten gaituzte, ez baitute proposamen argirik egiten. Halere, nik hauxe azpimarratuko nuke: alderdi sozialistak herri honek arazo politiko bat duela barneratu du eta irtenbidea eskatzen duela konturatu da. Hori horrela, PP bakarrik geratuko da. Gero, noski, itun berria nola egikaritzeko den? Datorren legealdian edo bi barru? Hor daude auzia eta lehia. ■



**LUARKITEKTOAK**  
hirigintza  
hirigintza aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
perifazioak  
balorazioak  
etxebizitzaren proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
Tel 948 13 26 97  
lua@luark.com

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako  
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

Atez ateko hondakin bilketa

# Hamar gezur handien en rankinga

Gipuzkoako ia 300.000 biztanlek atez ate bereiziko dituzte euren hondakinak 2013tik aurrera, 34 udalerritan sistema hori ezartzea erabaki baitute. Atez atekoaren inguruko galdera mordoa datorkio herritarrari, aldaketa oro gertatzen denean bezala, eta badago zalantza handiak dituenik. Ea kronika umoretsu honekin gauza batzuk argitzen ditugun.

URKO APAOLAZA

%80A BIRZIKLATZEN dugunok, asperduratik barregurara pasatu gara errausketa-zaleek atez ateko hondakin bilketaren kontra jaurtitzen dituzten argudioak entzutean. Gipuzkoako 34 udalerritan jarriko dute martxan eta jadanik horietako batzuetan hasi da ohiko bonbardaketa mediatikoa. Hernanin badira ia bi urte hasi ginela, eta esperientzia horretaz baliaturik, ranking moduko bat egitea otu zait, gure kuboa oraingino anakondarik ez dela agertu erakusteko. Jaun-andreok, hemen dituzue atez atekoaz esaten diren hamar gezur handienak:

**1- Zikina da.** Hori dioenak ez du inoiz bere etxeko komuna garbitu, ez ditu bazkaritako ontziak garbitzen. Organikoarentzako kuboa norberarena da, hala ulertzen dugu, eta platerak, komun-zuloa edo leihorak garbitzen diren moduan garbitzen dugu gure kuboa.

**2- Kiratsa dario.** Gezurra borobila. Organikoari ez dio zertan denborarik eman behar usainik botatzeko, maiztasunez jasotzen delako. Dena den, badaude trukoak epe luzeagotan usainik ez agertzeko, arrain-hondakinak sukaldako-paperekin biltzea eta abar. Paperak, plastikoak eta janariak poltsa itxi batean nahas-



Organikoa jasotzeko kuboa-ren parodia Usurbilen.

tuta jartzen badira, orduan bai, orduan usaina azkar zabaltzen da, usteltzea bizkorragoa delako oxigenorik gabe. Atez atekoak hori saihesten du hein batean. Gainera, zaborrak zabor izateari uzten dio bereizita jasotzen den unetik.

**3- Ezin izango dut arrainik erosi!** Lasai. Lehendabizi lasaitu. Eta gero irakurri aurreko erantzuna. Legatza saltsan da nire espezialitatea!

**4- Ez da eroso.** Jakina, eta txamarra eta botak jantzita euripean ibili behar izatea kontenedorea dagoen tokiraino, oso eroso da. Kontenedoreko tapa astun eta zikina (hori bai zikina!) altxatzean hainbat egunez usteltzen egon den zaborraren (hori bai zaborra!) perfumea usaintzea, oso atsegina da. Atez atekoa egiten dugunok etxeko zapatilatan jaisten dugu "basura", aitarenean batean.

**5- Gure auzoko blokeetan nola egingo da ba?** Hernaniko kaxkoan egiten bada, edozein tokitan egin liteke. Bi urteren buruan behin bakarrik utzi digute guri kuboa jaso gabe, 2011ko azaroko uholde handiak izan zirenean. Atez ateko bilketak herri txikietarako baino ez duela balio sinetsarazi nahi izan dute errausketa-zaleek. Baina sistema malgu-

da eta edozein tokitan egin liteke: ordutegiak moldatuz, espazio fisikoak egokituz, garraio sistema samurragoak erabiliz... Hiri ugaritan biltzen dira hondakinak atez ate eredu ezberdinak erabiliz (Bruselan, San Frantziskon, Sidneyn...) eta biztanle dentsitate handiko herri askotan ere bai. Adibidez, Kataluniako Canet de Mar-en 2.400 biztanle bizi dira kilometro koadroko, Donostialdeko bikoitza, eta Espainiako Ingurumen

## 2013: urte mugarria Zero Zabor biderantz

Joan den astean azaldu zuten Gipuzkoako 34 udalerri atez ateko hondakin bilketa-rekin hasteko asmoa dutela. Tartean dira Arrasate, Tolosa, Zarautz eta Bergara gisako herri handiak. Lehenik udal plenotan hartuko dute erabakia. Legorretan jada onartu da, eta testu hau idazteko unean Villabona, Zizurkil, Segura, Lezo eta Zestoan onartzeak ziren. Ekaina bitartean udaletako pleno guztietan eztabaidatu eta bozkatuko da. Bilduk agintzen du horietan gehiengo osoz, eta ez dute arazorik izango ekimena aurrera ateratzeko.

Ondoren sistema ezartzeko prozesua hasiko da, Debagoiengan, esaterako, oso aurreraturik dute hondakinen kudeaketa plangintza, eta apirilera bukatuta izatea espero dute. 34 udaletako aurreikuspenen arabera, 2013an herri guztietan egon behar luke atez ateko sistemak martxan.

Bilduk azaldu du parte hartzea izango dela ardatza eta herritarren ekarpenak jasoko dituztela. Helburu zehatza dauka ekimenak: hondakinen arazoari ahalik eta gehien gutxituz, berrerrabiliz eta birziklatuz aterabide ematea.

ministerioak sari bat eman zion hondakinak *porta a porta* jasotzen izandako emaitzengatik!

**6- Inposizioa da.** Izatekotan, Europako araudiak inposatzen du, organiko guztia berezita jaso behar dela baitio. Antolatuko al zenuke herrian erreferendumik pixa kalean egitea baimentzeko? Semaforogorria saltatzea zilegi al da? Zergatik inposatzen zaio herritarri zaborra kontenedoreetara botatzea... eta etxeko leihotik bota nahi badu? Bere zaborra da, ezta? Kutsatzeko eskubiderik ez dugu, gure ondorengoen biziaz ari garelako.

**7- Garestia da.** Ez bost kontenedoreko sistema baino garestiago. Biltzea garestiago da lan-esku gehiago behar delako (lanpostu gehiago ere bai); baina birziklatzen dena askoz gehiago denez, eta zabortegira (edo balizko errauskailura) botatzen dena askoz gutxiago, diru iturri oparoa bihurtzen da eta konpentsatzen du. Hernanin, Udalak azaldu zuenez, hilero 47.000 euro aurrezten dira zabortegira askoz tona gutxiago botatzen direlako. Badakizu zenbat gastatuko den errauskailuarekin? Iturri batzuen arabera 1.000 milioi euro!

**8- Organiko gehiegi bilduko da.** Hori da Gipuzkoako politikariren baten ahotik entzun duguna. Organiko asko biltzea ez da txarra, organiko hori ezin konpostatzea da txarra. Azpeitiko Lapatzeko konpostatze plantan bere gaitasunaren bikoitza jasotzen dute uneon. Alternatiba

moduan Nafarroara eta Lapurdira eramango du Gipuzkoako Aldundiak oraingoz materia organiko hori. Gipuzkoako hondakinen planak hiru konpostatze planta aurreikusten ditu, baina errausketa-zaleen interesak medio, bat besterik ez da egin. Dena den, Debagoiengako Mankomunitateak udaberrirako beste konpostatze planta bat irekitzea espero du. Konpostatze planta bat irekitzea errauskailu bat egitea baino berrehun aldiz merkeagoa da.

Eta zertarako nahi dugu hainbeste konpost? Galdetuko du baten batek. Hobe konposta zaborra baino. Konpostak erabilera ugari ditu, ez bakarrik lorategitarako, gure mendi ihartuak biziberritzeko ere bai. Jose Miguel Edeso EHUKo irakasleak ikerketa egin du eta pinuditako lurra berreskuratzeko ezin egokiagoa dela dio.

**9- Errauskailua berdin-berdin beharko da.** Gezurra borobil-borobil-borobila. Atez atekoarekin %85etik gora ere birziklatu daiteke (Antzuolan %90 birziklatzen dute). Geratzen den apurra, hondakin "inerte" da (kutsatzen ez duena) eta ez legoke arazorik edozein tokitan

**Zertarako nahi dugu hainbeste konpost? Galdetuko du baten batek. Gure mendi ihartuak biziberritzeko, adibidez. Hobe konposta zaborra baino**

biltzeko, erraustu behar izan gabe, obretako lurra harrobiak berreskuratzeko biltzen den bezalaxe. Dena den, horrela hasita, ez da egia errauskailuarekin zabortegien aroa amaitzen denik: errauskailutik ateratako eskoriak eta errauts toxikoak zabortegi batean bildu beharko dira (hondakinen planak iradokitzen du Mutiloako Luper zabortegira eramanez litezkeela materia kutsagarri horiek), eta askoz arriskutsuagoa izango da.

**10- Begira, begira... nola dauden atez atekoa egiten den herrietan.** Bai, esaten dute Hernanin arratointamoi batzuek mutiko bat eraso zutela kuboa hartzera zihoanean. Eta txotx denboraldia bertan behe-geratu omen da jenderik ez datorrelako. Eta zabormendiak ei daude lehen parkeak zeuden tokian. Eta... ring-ring! Esnatu!

Amaitzeko ohar bat kontu honekin hasi berri diren 34 udalerritako laguntzat. Normalean, atez atekoa ezarri baino hilabete batzuk lehenago eta beranduago, fenomeno parnormal bat gertatzen da. Alderdi batzuetako zinegotziei halako gaitz arraro batek jotzen die, *gutunitis*-a edo *prentsa-obarritis*-a dei diezaiokegu. Hauteskundeak gertu daudenean ere eman liteke eta herritarren umorean eragin dezake. Beraz, pazientzia. Animo eta ongi etorri selektiboen mundura! ■

**argia.com**

Urko Apaolazaren blogean loturak eta irakurleen iruzkinak



Unai Larreategi

Euskal Herrian Euskarazeko kidea

# «Asimilazio kulturalari beste era batera aurre egiten ikasi behar dugu»

EHEk martxoaren 17an Euskaraz Bizi Eguna egingo du Donostian. Herri mugimendua bide berriak urratzen hasia da, salatzeari eta aldarrikatzeari uko egin gabe, norberak egunerokoan euskaraz bizitzeko egin dezakeenaz hausnartzen ari dira.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Zer esan nahi du EHEk *Euskaraz Bizi* leloa aieratzen duenean?

Orain dela bizpahiru urtetik dator hau dena, gure diskurtsoa analizatzen hasi ginenetik. Garai batean, hizkuntza eskubideak aldarrikatzea, defendatzea, zen kontua. Ordea, konturatzen hasi ginen defentsarako, salaketarako, borrokarako diskurtsoa, edukiak eta tresnak genituen bezala, jendearen hizkuntza ohituretan eragiteko garaian hutsuneak zeudela. Zer transmititzen genion guregandik gertu zebilen euskaldunari, euskaraz bizitzeko izugarrizko grina zuenari, eguneroko bizitzarako? Aktibo egon behar ginela bai, baina aktibo besteei eskatze-ko, aldarrikatzeko... Konturatu ginen defentsa mekanismoak kendu gabe, eraikuntza mekanismoak martxan jartzeko garaian geundela. Hizkuntza Eskubideen Eguna egitetik Euskaraz Bizi Egunera pasa gara.

Nola hartu du aldaketa EHEren inguruko jendeak?

Batzarretan-eta, jendeak oso ondo hartu du. Dena dela, beste kontu bat aipatu nahi nuke: asimilazio kulturala, hizkuntzari lotutakoa. Asimilazio politikoa baino lehen-



**“Konturatu ginen defentsa mekanismoak kendu gabe, eraikuntza mekanismoak martxan jartzeko garaian geundela”.**

gokoa da kulturala. Adibidez, iazko leloan *Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe*, irakurketa hortik hasten da. Gu zerk egiten gaitu herri? Gure hizkuntzak. Horri begira, zer

dator Frantziatik eta Espainiatik eta guk nola ematen diogu buelta asimilazio prozesu horri? Beraz, ondo dago besteei eskatzea, baina lehenengo eta behin kontziente

izan behar dugu zein egoeratan gauden eta asimilazio kulturalaren aurrean beste era batera jokatzeko, aldatzen, berrasmatzen ikasi behar dugu.

**“Euskalduna naiz eta harro nago”, “%100 euskaldun”... tankera horretako esaldiak darabiltzazue.**

Eguneroko bizitzan menpekotasunak sortzen dizkigu asimilazioak eta horiei aurre egiteko aldaketak egin behar ditugu, eta aldaketok ez dira horrelako hausnarketak: “Ni oso euskalduna naiz, oso kontziente naiz...”, trankil, Odriozolak esaten duen bezala, gure *frantsesito* edo *españolitoa* denok daukagu barruan. Jakin egin behar dugu frantsesitoa/españolitoa dagoela barruan eta gero euskalduntasuna lehenago izan dadin asmatu behar dugu. Konturatu behar dugu gure buruarekiko errespetuz egiten dugula ariketa hori, harrotasunez, eta beraz ona dela denentzat, guretzat, gure ingurukoentzat, erdaraz bizi nahi duenarentzat. Horrela, asimilazio prozesua eteten dugu, hortik irte ten ari gara. Baina irteteak ez du esan nahi konfliktua bilatzea edo besteari eskatzea ez dakit zer, bai zik eta gudan dagoen horretatik zerbait berria eraikitzea.

**Euskaldunak kikilduta bizi izan garela eta garela esan ohi da.**

Eta erdaldunekiko errespetuz gure buruari kristoren egurra eman izan diogu eta ematen diogu. Zazpi euskaldun gehi erdaldun bat, zortzi euskaldun izan beharko luke ekua zioak, eta ez zortzi erdaldun. Ez dugu gatazkarik sortu nahi inorekin, beraz amore ematen dugu segituan eta asimilazio prozesua ari gara elikatzen horrelako jokabideak ditugun bakoitzean. Beharbada super-euskaldunak sentitzen gara, oso ondo ari garela uste dugu,

Euskal Herri euskalduna nahi dugu... baina horrelako egoeren aurrean ez gaude armatuta, ez daukagu mekanismorik egoerari buelta emateko.

**“Euskalduntasuna abertzaletasuna baino lehenago jartzen baldin badugu, hobeto. Aldaketa hori ematen dugunean asko irabaziko dugu”**

Jokaerak aldatzea gure esku dago, ez dago inongo konstituziotan idatzita, kalekoa da eta kalekoa askotan gogorragoa izaten da.

Horrek guztiak ariketa pertsonala, eta era berean, kolektiboa eskatzen du. Gu horretan gabilta eta beste eragile batzuk ere bai; denak elkartzen ari gara.

**“Hizkuntza jokaerak aldatzea gure esku dago, ez dago inongo konstituziotan idatzita, kalekoa da eta kalekoa askotan gogorragoa da”**

Esan duzu asimilazioari aurre egiteko bidea probatzeak ez daukala zertan gatazka eragin.

Interesgarria da besteek ere ulertzea zergatik egiten dugun planteamendu hori, askok ez du imajinatzen menpeko egoeran gaudela, egunerokoan zein ezinegon sortzen zaizkigun. Euskaldun euskaltzalea ez bada jabetzen nola asimilatzen gaituzten, jende hori [erdaldunak] are gutxiago. Beharbada ez dugu lortuko haiek euskaraz bizitzea, baina txip aldaketa eragin diezaikegu. Ez goaz inoren aurka, gurearen alde

egingo dugu, harrotasunez, autode-terminazioz, burujabetzaz, jokabide sumisoak gaindituz... hitz egokia zehazten ere joan beharko dugu.

Burujabetza, asimilazioa... erabakiak hartzeko eskubideaz hitz egin nahiko nuke...

**Aurrera.**

Jendeak etengabe galdetzen digu, “independentzia aldarrikatzen ari zarete?” Ez, ez dugu independentzia aipatzen, guk dioguna da euskal komunitateak bere lurrean bere politikak, bere legeak, mahai gainean ipintzeko eskubidea beharko lukeela izan. Gaur egun, politika batzuk aplikatuz gu menpeko bihurtzen ari dira eta horrekin apurtzeko diogu gurea egin nahi dugula. Baina herri mugimendu bezala estatua aldarrikatu behar al dugu euskararen alorretik? Gure lana da ala politikariena?

Horrekin lotuta dago orain esango dudana. Abertzale munduari orain arte ez diogu ezer esan. Euskal Herria askatzeko lanean dabilen jende guztia zer askatu nahian dabil? Herria? Lur eremua? Abertzaleak zer defendatzen du gaur egun? Eztabaida zabaldu beharra dago eta hor eragin. Parametroak aldatu behar ditugu. Guk diogu herria askatu behar dela eta hau zerbait baldin bada euskararen herria da, euskaraz bizi zen herria, orain asimilatua, gutxiagotua.

Beraz, jar dezagun herri euskalduna erdigunean, eta era berean, jar dezagun norbanakoaren euskalduntasuna gutxienez abertzaletasunaren parean. Eta euskalduntasuna abertzaletasuna baino lehenago jartzen baldin badugu, hobeto. Aldaketa hori ematen dugunean asko irabaziko dugu. Konkista politikaren aurretik konkista kulturala dago. Hori ulertzen hasi behar dugu. ■



Babeslea: Bilboko Udala



## Udaltop, martxoaren 22 eta 23an

NOLAKOA DA gure (udalaren) *bizkuntza-politika*? Begiratu, mesedez euskara sailetik kanpo! Izenburu hori izango dute aurtengo Udaltop Udaletako Euskara-zerbitzuen IV. Topaketek. Lasarte-Oriako Kultur Etxean barrura begira jarriko dira beraz bi egunez, eta besteak beste Bermeo, Berriozar, Hernani eta Santurtziko udaletako esperientziak kontatuko dituzte. Kataluniatik Bernat Joan i Mari, Generalitateko Hizkuntza Politikako idazkari izan zena etorriko da hitzaldia ematera. Bestalde, Mari

Luz Esteban antropologo eta feministak emakumeen aldeko borroka eta euskararen normalizazioa lotuko ditu *Feminismoa, euskaragintzarako gogoeta-tresna* izenburupeko hitzaldian.

## Arturo Campion euskaltegiak 40 urte

ARTURO CAMPION euskaltegia 1972. urtean sortu zen Iruñean eta Euskal Herriko zaharrenetarikoa da. 2012. urtean zehar hainbat festa, kontzertu eta ekitaldi egingo dituzte urteurrena ospatzeko. 40 urteak kari logoa –ondoko zutabea– aurkeztu dute.



## Hausnartu Sariak

JOAN DEN ostiralean, otsailaren 24an, Soziolinguistika Klusterrak jardunaldiak egin zituen Donostian. Ekitaldi hura baliatu zuen Hausnartu sariak banatzeko. Lehenengo saria Paula Kasaresek jaso zuen *Euskararen belaunex belauneko jarraipena bizkuntza sozializazioaren paradigmatik* lanagatik, bigarrena David Anautentzat izan zen. Leitzarrak *Sartu-irten bat auzoaren etxean* lana aurkeztu zuen. Hirugarren saria Maider Ugartemendiari eman zioten *Hizkuntza marko birneledunaren ondorioak* lanagatik.

## BAHEA

Lurdes Auzmendi HPSko sailburordeak Berrian esanak: “Beharrezkoa al da Gipuzkoan 27 herri aldizkariri eustea? Ez da nahitaezkoa. Kalitatezko medioak behar ditugu, eta behar dugu euskararen presentzia indartsu bat hedabide guztietan, baina horretarako ez da nahitaezkoa dugun guztia. Beste era batera antolatzeke esan diogu sektoreari, eta ulertu dute. Horretan ari dira, eta espero dut 2013rako beste panorama bat edukitzea. Denbora daramagu euskalgintzan elkarlanean aurkeztutako proiektuak lehenesten. Herri eta auzo bakoitzak ezin du bere ekimenekin jarraitu; ez gara horrenbeste”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Gasteiz 76: Estatua ere bada erantzule

Aste honetan, martxoaren 3an, Gasteizko San Frantzisko parrokian langile grebalariai asanblada bat egiten ari zirela polizia espainiarrak eragindako masakrearen 36. urteurrena da. Poliziaren esku-hartze basatiak bost langileen heriotza eragin zuen eta beste asko zauritu zituen. Gertaera haiez geroztik 36 urte igaro dira, baina ez da inolako ardura polizial, penal eta politikorik garbitu. Eta erantzuleak egon, badaude.

Manuel Fraga PPko presidente eta senataria jadanik hil da, baina ez zen erantzule bakarra izan. Bere heriotzaren ondoren, badago hilketa haien gaineko zigorgabetasuna gehiago atxiki nahi duenik. Baina egun, zenbait erantzule bizi dira: Martin Villa ministro-ohi frankista, esaterako, eta masakre hura zuzendu zuen poliziaren burua, adibidez. Erantzuleen artean politikariak ez dira falta, Espainiako monarka Juan Carlos Borbón kasu, orduan Estatuburua eta indar armatuen –poliziak ere bai– ardura-dun goren baitzen. Azken batean, hilketa haiengatik Espainiako Estatua bera epaitu behar da.

Horregatik, memoriaren eta erantzukizunak garbitzearen alde borroka eredugarria daraman Gasteizko Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak atsedeenik gabe jarraitu behar du lan horretan. Oraindik helburu batzuk betetzeke baitaude. Euskal Herriko erakundeek elkarte hori lagundu beharko lukete, muga ekonomikoek ez dezaten geldiarazi gertaera haien oroimen historikoa mantentzeko lana. Eta langileek, sindikatuek eta eragile sozial eta politikoez elkarlanean mobilizazioetan parte hartu behar lukete, “arrazoien eta bizitzaren hiltzaileek” ez dezaten inoiz bizitzan eta heriotzan atsedeenik hartu eta “gure oroimenek” pertsegitu ditzaten.

Juan Mari Arregi



## Ezker abertzalea posizioak ofizialduz

**EZKER ABERTZALEAK** bere posizioa finkatu du balizko bake prozesu baten aurrean izan beharreko printzipioei buruz, bereziki elkarbizitza, biktimak, gertatutakoaren kontakizuna eta konponbide demokratikoan jorratu behar direnak azpimarratuz. Eta beste pauso bat eman du ETArek biktimekiko mina, errespetua eta bere aldekoak ez ziren biktimekiko sentsibilizazio falta aitortuz.

Bere jarrera politikoen ondorioz, biktima batzuei mina eragin badie edo irainduta –gaztelaniazko bertsioan gogorragoa den *“humilladas”* erabiltzen du– sentitu badira, bere atsekabe zintzoa adierazi die. Honelako gauzak ez dira orain arte entzun ezker abertzalearen adierazpen publiko batean eta, alde horretatik, beste urrats bat moduan hartu behar da.

Azken finean, ezker abertzalearen esparru soziologikoan ere gauza hauek ez dira homogeneoak, eta askotan muturrekoak ere izan litezke: batzuk egoki ikusten dute borroka armatuaz egin den erabilera; beste batzuk garai batera arte bai, baina gero ez; biktima batzuk gerra baten ondorio ziren eta kito; batzuentzat biktima mota bat onargarria zen –adibidez guardia zibil bat– eta besteak ez –zinegotziak... –. Askotarikoak dira gai horiekiko ezker abertzalearen baitan dauden iritziak eta bake eszenatoki batera egokitu behar direnak. Alde horretatik, ezker abertzaleak posizioak ofizialdu behar ditu apurka, bidearen zati bat Gernikako Adierazpenarekin egin du eta, aldi berean, bere bidea ere egiten ari da.

Jakina, hau sinesgarritasun kontua ere bada: zergatik sinetsi behar zaio orain? Orain bai, komeni zaio orain? Orain bai, bestela presoak barruan geratzen zaizkielako? Orain bai, hainbeste sufriarazi

dutenean? Horiek eta beste galdera asko ere egingo ditu makina batek. Diario Vasco-ko zuzendariorde Lourdes Perezentzat, esaterako, honekin ezker abertzaleak bere “erantzukizuna lausotu” nahi du eta agiriari berrikuntzak onartzen dizkion arren, azpimarratzen du biktimek nekez ikusi dezaketela beren sufrimendua islatua halako idazki batean, besteak beste ETArek desagertzea eskatzen ez diolako eta gatazka armatuaren erretolikan babesten delako.

**SINETSI** ahal izateko, hala ere, norbaitek zerbait adierazi behar du lehenbizi eta sinesgarritasunarena ondorengo kontua da. Ezker abertzaleak egin du berea eta orain denbora behar du, besteak sinetsi dezaten. Urrats gehiago ere behar du, baina horiek egiazko bake prozesu baten testuinguruan ematea da logikoa. Hori da premiazkoena egun: bake prozesua.

Baina ez da hortaz hitz egiten, eta ozen aldarrikatu behar da: gatazka bat bizi izan da euskal gizartean eta berau bideratzeko logikoa eta zibilizatuena bake prozesua da. Eta zergatik ez da hortaz hitz egiten modu argian? Sukaldean isilean prestatzen ari delako prozesu hori –PPk ere denbora behar du–, edo errotik baztertzen delako hori gerretako edo benetako gatazken kontua delakoan? Komeniko litzateke alderdiek eta eragile sozialek posizioa argia hartzea gaiarekiko.

Badira arrazoiak ezker abertzaleak dioena sinesteko eta garrantzitsuena da lortu duela ETak borroka armatuari behin-betiko amaiera ematea. Hori zen helburu nagusia eta hori lortu du. Baina ez, orain lortu behar du ETA desagertzea; hau lortuko balu ETArek biktimekiko barkamena, kalte-

ordainak, damua edo kontakizunarekiko nahi den baldintza jar liteke.

Eta honek irteera txarra edo, onenean, erdibidekoa izango du baldin eta Madrilgo Kongresuko akordio berria onartu dutenek gatazka ukatu, kontakizun bakarra eratu eta garaile eta garaituen logika inposatu nahi badute. Irteerarik ez litzateke testuinguru hori baliatu eta ezker abertzalearen iraganeko akatsak irtenbide umiliagarriekin ordainarazi nahi balira. Errakuntza galanta pentsatzea ETA desagertu delako bakea egina dagoela.

**LOGIKOENA** da pentsatzea, eta hori pentsatzeko zantzuak ere badira, Mariano Rajoy eta PP beste logika baten ari direla. Isiltasuna da Rajoyren kudeaketa moldearen ezaugarri nagusia, eta dagokigun gaiak isil samar dabilenez, batzuk ondorioztatzen dute ez dela bere lehen mailakoen artekoa. Baina dioten bezain azkarra bada –Zapateroz ere hori esaten zen bere agintaldiaren hasieran– argi dago eskuratu nahi izango duela ETArek desagertzea eta gatazkaren konponketa ekarri zituen agintariaren titulua.

Bitartean, egungo Euskal Herrian, biolentzia arrazoi politikoengatik erabiltzen dutenak Estatuaren ustezko zerbitzariak dira: joan den astean atxilotutako Iñaki Igerategi eta Iñaxio Otañok Guardia Zibilararen eskuetan izandako tratu txarrak salatu dituzte. Irakurgai dira haien testigantzak eta erabat sinesgarriak. Eta kezagarria da, areago konponbide garai hauetan, tortura salatzen duten ohiko pertsona eta eragileez gain zein gutxi aipatzen eta zabalitzen diren tratu txarren salaketa hauek. Zein gutxi aipatu eta salatu.



# Pixoihalek gorderik daramaten benetako zikinkeria

1970ko hamarkadan zabaldu diren arren, Ekaingo harpeetako hurrek ere soinean zeramatzatela iruditzen zaigu. Pixoihalak dira, *pamperrak*, *dodotisak*, *fardelak*, *paketeak*. Horiei esker lehorrik dauzkagu umeak modu errazeen. Baina orain hasi gara ohartzen zein neurritako zabor pilak oparituko dizkiegun.

JACQUELINE FARMER-EK EGINIKO *Couchorama* dokumentala eman dute urtarilean frantsesezko *Arte* katean. Errauskailuak direla eta hondakinen eztabaida bizian dauden euskal herrietan erakutsi behar-ko litzateke DVDa. Oso ona. Norbaitek noiz euskaratuko zain egon gabe, hemen laburbiltzen dugu.

Jacquelinek haurra izan berria du. Asteak aurreratu ahala ohartuko da etxeko zakarrontzia fite betetzen zaiola. Fardel modernoek primeran xurgatzen dituzte Thieuren pixak eta gorotzak baina... nora ote doaz gero. Jacquelinek kalkulatu du mutikoak autonomia hartu bitarteko hiru urtetan 6.000 pakete zikinduko dituela. Tona bat zabor!

Belaunaldi bakar batean ingurumenari sekulako arazoa sortu zaio gaur aurrerapenaren ikurretako bat denarekin. Nola moldatzen ziren lehen? Ama batek ba dauka alternatibarik Erdi Arora gibelatu barik? Ikerketan murgilduko da Jacqueline.

Marion Donovan izeneko emakume batek sortu zuen gaurko fardelen aitzindaria, baina historiak haren izena ahanztu du. Beranduago Procter & Gamble multinazionalako ingeniariak 1956an diseinatu zuten beste bat, lehenik zerrautsa zeramana, gero joan dira materialak sofistikatzeko. Europan 1970eko hamarkadan zabalduko zen denetan.

Elisabeth Badinter idazle feminis- tarentzako *—Le conflit, la femme et la mère* bere azken obra— emakumeei mirakuluzko aurrerapena ekarri die usatu eta botatzeko pixoihalek, lan astuna kendu, kasik pilula antisorgailuaren tamainako iraultza. Ados, dio Farmerrek, baina erosotasunak arazo bat dauka: 300 urte baino gehiago behar ditu desegiteko!

Fardelak azaleko polietilenoaren barruan gai txit xurgatzailea darama: sodio poliakrilatoa. Sekulako likido pila har dezake bere baitan ingurura tantarik isuri gabe eta hurraren larruazala lehorrik atxikiz. Ordainetan, Michel Vert ikertzaileak esplikatu duenez, xurgatzaile sintetiko berezi horiek birziklatzerik ezin da pentsatu ere egin gaur egun.

Fabrikatzaileak ari omen dira hondakinen arazoa hobetu nahian. Askok mehetu eta arindu dituzte paketeak, baina... horretarako lehen zeukaten zelulosa biodegradagarri apurra poliakrilato menderakaitzez ordezkatu dute. “10 urte barruko soluzioetan ari gara” esan diote Jacquineri Procter & Gamblen.

“Baina 10 urtetan Frantziak metatuko du 1.200.000 elefanteren pisua daukan fardel mendia!”, hausnartu du kazetariak. Europan uen bat daukan familia batean sortutako hondakin birziklaezinen %50 pixoihala da. Gipuzkoan hondaki-

Ezkerreko irudia Kimberly Clark multinazionalaren *Huggies* markako pixoihal paketea. Ohartu 5 urteko haurrentzako eginak daudela, nahiz eta gehienetan adin hori baino askoz lehenagotik umeak kontrolatu behar dituen bere larriak. Disney faktoriaren publizitatea berekin darama. Eskubiko argazkia *Asia to Europe 2011* blogetik hartu dugu: amari eskutik helduta doan mutikoak *kaidangu* edo praka zuloduna darama jantzita. Bere beharrak ondo kontrolatu bitartean ume gehienek janzki hori erabiltzen dute gaur egun ere, Txinan eta oro har Asian giza gorotzarekiko ez dute beste lekuetan den fobiarik, nekazaritzarako betidanik erabili dute. Pixoihal garestia saltzeko multinazionalak erakutsi behar dute *kaidangu* atzerapenari lotua dela eta *fardela* modernoa dela.

nen Atez Ateko bilketa egiten duten herrietan ohartu dira. Irtenbide zaila.

Zer dio pixoihalez pediatriak? Berry Brazelton bezalako adituek diote umei zaharragoengandik ikasteko aukerak ukatzen zaizkiela fardelokin artifizialki garbi eta lehor atxikiz. Haurrak ikasi egin behar baitu. Multinazionalen kalkulak alderantzizko norabidean doaz, 8 urte eta beranduagorako pixoihalak sustatzen dituzte, obramenduak “kontrolatzen ikasteko” paketeak, “gauerakoak”, “pijama-fardelak”...

## Hautatzeko eskubidea?

Orain Procter & Gamble eta enparauek ahalegin handia ari dira egiten formula Txinan, Indian, Nigerian, Egipton eta abarretan zabaltzeko. Txinan egiten duten ahalegin berezia aipatzekoa da. Herrialde askotan kakari eta pixari fobia egonik produktuon oinarrian, obramenduekiko betidanik harreman normalagoa izan dute txinatarrekin argudioa findu egin dute. Oraindik Txinako haur gehienek izter tartean etendako *kaidangu* galtzak darabiltzate, larria iritsitakoan edozein txokotan libratu ahal izateko.

Nielsens kontsultorak prestatu die fabrikatzailei txinatarren ohiturak aldarazteko argudioa: “Gure *pamperrerekin* zure haurrak gau osoan hobeto egingo du lo, lasaiago egongo da



eta egunez eskolan emaitza hobeak lortuko ditu”. Beti dago soziologo edo psikologo talde bat ikerketa kliniko bat aurkikuntza berresteko.

Multinazionalei hortzak luzatzen zaizkien bitartean Txinako edo Nigeriako klase ertainetako herritarren ohitura aldaketekin sakelaratu dituzten milioiekin, beste leku askotan erakunde publikoek kontabilizatzen dituzte aldaketaren kosteak.

Britainia Handiko gobernuaren ustez, urtean 800.000 tona *pakete* zikin metatzen zaio, Wembley estadioa bezalako 8 betetzeko adina; hondakinok kudeatzea 67 milioi libra kostatzen da. Zenbait herri eta hiri horregatik hasi dira pixoihal berrerabilgarriak sustatzen. Gipuzkoako herri batzuetan hasi diren

modu beretsuan. *Couchoraman* Londresko Lewishamen zentratu dira.

Zenbait haurtzaindegitan haur guztiek darabiltzate horrelakoak, esaterako Londresko Islingtonekoek. Gurasoen eta langileen ohiturak aldatzeko bidea egin behar izan dute.

Fardelon zabaltzeak baditu zailtasunak. 30 urtez errazera ohitutako jendeok ez ditugu konplikazioak maite. Lan bat gehiago, garbitzea. Gehi aurreiritziak, ez txikiena ea 30 urtez atzera egin nahi duzulako zoratuta zauden galdetuko dizun ama edo amaginarreba.

Elisabeth Badinter ozen mintzo da aurka feminismoaren ikuspegitik. Nork garbituko ditu pakete berrerabilgarriok? Gizonek ez, lan bat gehiago emakumearentzako.

Ekologismo erradikalaren asmakizuna iruditzen zaizkio, emakumeari berriro autonomia galaraziko diotenak.

*Couchoramak* ez ditu ahaztuko bestelako bi alternatiba ere. Bata, botatzeko pixoihal biodegradagarriak ere badira, Nature Babe Care konpainiarenak esaterako. Usatu eta jaurtitzekoak eta ez osoki konpostagarriak. Horiek tratatzeko konpostatze prozesuak jarri behar dituzte erakundeek, edo biogasa sortzeko. Jacqueline Farmer mintzatu da haurren higie naturala lantzen duten jendeekin ere, inolako fardelik gabe umeari bere beharren kontrola erakusten modu naturalean saiatzen direnekin. Dena den, oro har, hautatu beharra dago edo usatu eta botatzeko fardelen edo garbigarrien artean.


Bitartean, Procter & Gamble, Kimberly Clark eta beste multinazionalen marketinak ez die alternatiboi zirriturik uzten. Edozein ama berrik etxean jasoko du, klinikak datuak emanik, produktuen publizitate. Are larriagoa: kliniketan ez du sarbiderik multinazionalak beste inork, eta lehenbizi probatu dugunarekin segitzen dugu maizenik.

Hautatzeko eskubide sakratua argudiatzen du zenbaitek, ez aldatzearren. Horiei erantzuten die Islingtoneko haurtzaindegiko zuzendari Nasso Christouk: “Noraino heltzen da hautatzeko gure eskubidea? Gure erabaki batek ondorengo belaunaldiak kaltetuko dituela dakigunean, eskubiderik badugu horrelakorik hautatzeko?”. ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia



Iñaki Murua

## Eten da, dugu, gara...



ure ama, nahiz eta seme-alabek aste-  
ro egiten diogun bisitatxoa, baserrian  
bizi da, berez Hondurasen jaioa eta  
Lekunberrira asteburuetan joaten  
den pertsona gazte, tratu goxoko eta  
pazientzia handia duen baten laguntzaz.  
Hasi da ikasten, baina ez daki ia hitzik ere  
euskaraz. Eta orain, amarekin ere erdaraz  
hitz egin behar izaten dugu, batetik ditzoso-  
ko errespetuagatik eta bestetik, nahi dugula-  
ko biek jakin dezaten esaten ari garena, izan ere,  
laurogeitaka urterekin memoriak —eta hortzek—  
hutsune handi samarrak izaten baitituzte.

Ez dugu diruagatik egiten, ez, pertsona hau  
hartu genuenean ez genuen aurkitu,  
gure ama-hizkuntzan ari zenik, lan  
horri erantzuteko prest. Eta pozik  
gaude, gure ama geurekin bezain ongi  
zaindua eta oso gustura aurkitzen  
dugulako, joandako bakoitzean.

Amak egin digu sei senideoi gure  
herriko kantuen, bertsoen, esaeren,  
ipuin, ohituren, pasadizoen, histo-  
riaren, aurrerapenaren histeriaren,  
osasunari kasu egitearen, familiakoen  
heriotzara arteko zaintzaren, baratze-  
ko jardueren... transmisioa. Lehen  
ataleko kantu eta bertsoak, goizero  
jaikitzerakoan edo gauean ohera-  
tzean, egundoko ahaleginak eginez  
ezti kantatzeko eta erdi esnatu-  
rik geundenoi belarriak ez ezik bihotza  
ere goxatzeko. Dena aitortzera, zora-  
garri kantatzen zigula oroitzen naiz eta ahots  
ederraz gain belarri aparta zuela, eta duela, orain-  
dik ere kantuan hasten denean. Ama, ama da, eta  
guk gurea honelaxe bizi izan dugu!

Bera erditu zen eta gu sortu gintuen: sortu,  
kozkortu, gogortu eta egonkortu ahala, bera  
konkortu, ximurtu, xigortu, agortu... Baina,  
egundokoa izan behar du daukazun hura, nola  
bihotzean hala errailetan, hoberenaz aurrera,  
zeuk munduratupei ematea; zeuk egin dituzunak,  
osatzen ahaleginduz, kontrako noranzko joerak  
birrinduz, egokiak lurrinduz eta behin landuta-  
koak birlanduz. Zenetik eta senetik, denetik  
gingo zuen, kontzientziaz baino gehiago,  
belaunaldiz belaunaldi halaxe behar zuela ikasita  
zeukalako; beti halaxe ezagutu zuelako.

Egun, transmisio lan hori haurtzaindegiak  
edo eskolak egitekotan uzten dugu haurtzaroan,



DANI BLANCO

eta telebistak egiten du geroago, kasu gehie-  
netan. Halere, batzuetan, gure amaren zain-  
tzailea bezalako pertsonak betetzen dute  
leku hori, baina funtzioa bete gabe geratzen  
da, ezin baitu ezagutzen ez duena inorengan  
txertatu. Belaunaldi berrietan aurkitzen  
ditugu euskarazko balioen eta ezagutzen  
putzua hutsik daukaten gazteak. Koadrilan  
kantuan hasitakoan, bihotzetik, haurtzaroko  
sentipen xamur haien indarrez eta goxo-  
minez, melodiak bere kasa nola darigun eta  
garamatzen, oroitzapenen belazera, jaregindako  
zakurtxoa irrikari eutsi ezinik, salto eta jauzi,  
bere dohainez harro doan bezala, imajinatzea  
ezinezko zaienak. Eta ez dakite zer  
galtzen duten, urre koxkor hori  
barruan daramazula sentitzea zer den  
ez dakitelako. Hurrengoek, hurren-  
goek eta... ere izango duten ezereza!

Familiak mendeetan bete duen  
lekua bertso eskolek, kantu afariek,  
jaialdi/txapelketek, ipuin kontakete-  
k eta kontalariek bete behar al dute?  
Baina, bide hau egingo al dute  
denek? Premia hau nola barneratu?  
Zer egin galera hau saihesteko?

Konplexuz jositako gizarte azpi-  
kulturala gara; ingelesa ikasteari pisu  
garrantzitsuagoa aitortzen diogu geu-  
rea hasieratik ongi finkatzeari baino.  
Eta hori egiten ez duen gizarteak ba al du  
kultura propioz etorkizunik?


Geureari eskainitako presupostuak alda-  
tzeko eta hazteko kemenik ez duten gidariekin  
—eskuineko/erdiko/ezkerreko— urteetako men-  
derakuntza gaitzetzeko erabaki ausartagoak  
behar ditugula ikusten ez dutenekin? Geure  
Estatua izanik ere eta independente izatea lortu  
arren, gabezia honek jotako gidariekin ezin dute  
ikus, behar eta premia hau. Konplexurik gabe  
geure nortasun kulturala eraikitzeke diskurtsoa  
sortzea eta aplikatzea, beste dena baino aurrera-  
gokoa da, ea geurea geure kultur ikuspegitik bizi-  
tzeko modua ez duen jasotzen biharko amesten  
dugun independentziak? Estatuak?

“Euskal” aurrizki huts bihurtuak nahiz Bas-  
que Centertuak, —dun atzizkirik  
gabe, ez dit gure amaren irakaspe-  
na osatzen eta, kanpoko jantziz  
inguraturik, biluzik bizitzera kon-  
denatzen nau! ■



ASTE HONETAKO

# zozketa



## Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22  
Galdakao BIZKAIA

[www.andra-mari.com](http://www.andra-mari.com)

1

## Ekain berri



## Ekainberri

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

Portale, 9  
Zestoa GIPUZKOA

[www.ekainberri.com](http://www.ekainberri.com)

2



## Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

De la Cuesta, 7  
Alzuza NAFARROA

[www.museoteiza.org](http://www.museoteiza.org)

3



## Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Pupu eta Lore

5 DVD opari

Katxiporreta Koop.E.

[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)

4



## Gartxot

2 liburu opari

[www.argia.com](http://www.argia.com)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2311. Argia)

### ATXURRA hotela

- Lema Team Consultores S.L. (Donostia)

### DONOSTIAKO AQUARIUM

- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Usurbilgo Txistulari Taldea (Usurbil)
- Mamen Uharte Azpirotz (Leitza)
- Iñaki Irureta Errasti (Zestoa)

### OKATXU kamiseta

- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Jose Mari Goiburu (Donostia)

### ESAIT kamiseta

- Peio Garmendia Garmendia (Arrigorriaga)
- Andone Barandiaran Arratibail (Pasaia)
- Errioguarda Enea Jatetxea (Hernani)
- Fray Juan De Zumarraga Institutoa (Durango)
- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)
- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)

### HISTORIA DEL ROCK VASCO liburua

- Maria Eugenia Irido Agirre (Hondarribia)
- Iruñe Eguien Balantzategi (Elorrio)
- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)
- Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)
- Bergarako Udal Euskaltegia (Bergara)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)

[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)





# ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

